

Mitoaroaren parte

ZETAk Nafarroa Arenan egindako ikuskizunean Sakanako mamuxarroek, txatarrek eta momotxorroek parte hartu zuten, bestek beste / 22-23



UTZITAKOA



Festa egutegia Lakuntzan hasi, Olaztin segi / 13

Altsasuko Udalak ia hamar milioi euroko aurrekontua onartu du. Milioi bateko inbertsioak daude / 9

Haurren hizkuntza atzerapena atzemateko euskarazko proba sortzen bi altsasuar daude / 6-7

Maialen Larraza eta Nahia Goikoetxea, Sakanako Nesken Pala Txapelketako txapeldunak, pozik / 16

SINADURAK



JUANKAR LOPEZ -MUGARTZA / 4



JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON / 10



EKAIN ALEGRE GIL / 22



SAKANAKO SARE / 4

Altsasuko Krosetik Izaskun Beunza eta Victor Fernandez atera dira Espainiako Txapelketarako / 18-19

'Ombuaren Itzala' Patxi Bisquerten auzolanean ekoiztutako filma aurkeztu dute / 21

"Kintotan tratu gehiago duzu jende gehiagorekin"

OLAIA MACIA, AINHOA CALVO ETA NEKANE LAKUNTZA KINTO BURUZAGIAK
Altsasuko kinto ospakizunak azken 25 urtetan izan duen bilakaera aztertu dugu aurtengo eta 2000. urteko kinto buruzagiekin

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Kinto ospakizunen gorpila biraka hasi da. Dagoeneko Altsasuko kintoek lau buruzagiak dituzte. Emakumezkoak Olaia Macia Mendia eta Ainhoa Calvo Fuentes dira. Estreinakoz 2000. urtean hartu zuen emakumezko batek kinto buruzagi ardura. Nekane Lakuntza Mazkiaran izan zen. **Zozketa eguneko sustoa pasata?**

Olaia. Bai. Gainera, kuadrilla guztian bakarrak ginen uste genuenak ez zitzaigula tokatuko. Azkenean, bioi tokatu zaigu.

Nolaz egin zen emakumezkoen artean zozketa 2000 urtean?

Nekane. Orduan Camino Mendiluze Arregi zen alkatea. Bere ikaslea izan zen kinto bati, Galderri uste dut, proposamena egin zion: kintoen artean hitz egiteko, ea prest geunden emakumezkoen parte hartzea handitzeko. Denak bildu ginen, eta bozketa egin zen. Gauza desberdinak bozkatu genituen. Lehenengo, emakume bat erregina izango ote zen. Baiezkoa atera zen. Ondoren, ea bi erregina egongo ziren. Ezezkoa atera zen. Ez dut oso ondo gogoratzin, baina uste dut ere bozka-

tu genuela ea erreginak dantza egin ote zuen. Eta horretan ere ezezkoa atera zen. Bozketa eskua altxatuta egitea erabaki genuen, eta nik uste horregatik baiezkoa atera zela erregina aukeratzearena.

Dantza entseguak hasi dituzue, zer moduz?

O. Nahiko ongi moldatzen gara momentuz.

Ainhoa. Lehenengo egunean pixka bat galduta geunden, baina, dagoeneko, ongi.

N. Guk jota eta porrusalda entseatzen genituen. Zortzikoa ez. Bere garaian emakumezkoek ez genuen zortzikoa dantzatu. Garai hartan beldurra ez, baina erregina izatearekin nahikoa nuen.

Aurreko urtetan kintoan entseatzen ikustera joaten zineten?

O. Bai, bai. Ostiraletan.

A. Plazan batzuetan kintoekin dantzatzera sartzen ginen. Horregatik uste dut errazago egiten zaigula.

O. Festetan ere dantzaten dugu. **Irakasleak zein dira?**

A. Aitziber Etxaiz Soria, Edurne Somocurcio Gonzalez eta Nerea Mazkiaran Lopez de Muniain.

N. Gurea Luis Mari Lopez de Goikoetxea Sueskun izango zen.

Dagoeneko jantziak prest dituzue?

O. Duela aste edo hilabete batzuk prest ditugu.

A. Urte bat daramat dena prestatzen.

Zenbat jantzi?

O. Bina baserriar jantzi.

Senideren batek erabilitako zer bait jantziko duzue? Denak berriak?

O. Nik berri bat egin dut, bestea aurretik nuen.

A. Nik biak egin ditut.

N. Guk ohiko baserriar jantzi beltzak, puntu txuriak zituztenak jantzi genituen. Nik beste bat erosi nuen, grisa zen. Haiek oraingo jantziekin ez dute zerikusirik.

O. Bi behar dira eguraldiagatik eta parrandaren ondoren bat garbitu bitartean bestea janzteko.

Argazkiak eginak dituzue?

A. Ez

O. Ezta ere. Familiarekin, bakarrik, kuadrillarekin... Denetari-koak egingo ditugu.

N. Niri argazkiak eta bideoa egin zizkidaten. Gaur egun telefono mugikorra egonda, argazki-ena



"KUADRILLAN BAKARRAK GINEN USTE GENUENAK EZ ZITZAIGULA TOKATUKO"
OLAIA MACIA



"PLAZAN BATZUETAN KINTOekin DANTZATZEN GENUEN, ETA ERRAZAGO EGITEN ZAIGU"
AINHOA CALVO



"ERAKUSKETARAKO BILATZEN EGON NAIZ ETA KONTURATU NAIZ OSO ARGAZKI GUTXI DITUDALA"
NEKANE LAKUNTZA

ez da gauza bera. Hain justu erakusketarako argazkiak bilatzen egon naiz eta konturatu naiz oso argazki gutxi ditudala. Baina gaur egun...

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan eskatzen ibili zineten.

N. Gu bai, abesten eta eskatzen ibili ginen. Gure kabuz aritu ginen, musikariekin. Neskek aparte eskatzen genuen. Mutilek Santa Ageda egunean eskatzen zuten, beraiek bakarrik. Ez dakit zergatik egiten zen horrela. Lehendik zetorren ohitura, neskek bezperan kantu eskean ateratearena, eta berdin egin genuen. Eskearen oroitzapen ona dut. Batzuek komentatzen dute jende batzuk esaten zutela hurrengo egunean emanen zirela dirua kintoei. Eta bistan da askoz ere gutxiago ateratzen genuela neskek. 2.328,3 euro lortu genituen eta mutilek 15.660,6 euro. Baina azken kopuru horretan opilen dirua sartuta egonen da. Batzuek eta besteek jasotako dirua elkartu eta horrekin dena ordaintzen zen.

Zuek asteazkenarekin, azoka egunarekin, eginen duzue kinto eskea. Zein plan duzue?

A. Asteazkena egun ona da, bai. Gu, buruzagiak izanda, astoarekin joan behar gara. Gainontze-ko kintoak dirua eskatzen ibili-ko dira.

O. Ahal duten guztia eskatu behar dute. Txirrinak jo eta etxebizitzetara igotzea, lantegietara, azokara eta ahal duten leku guztietara joan beharko dira.

Aurreko urteko kintoekin egon zarete?

A. Bai. Asko lagundu digute. Goiz-goiz altxatuko gara. 07:00etan gosalduko dugu.

O. Ondoren banatuko gara eta eskatzera, binaka-edo.

Astoarekin dagoeneko konfiantza duzue?

A. Ez dugu ezagutu oraindik (barrez).

Opilak aipatu dituzu lehen.

N. Guk egin behar genituen, edertu, mutikoei eman eta gero saldu egin behar zituzten. Mutilak etxez-etxe opilak jasotzen pasatzen ziren goizean. Uste dut



TALLERES GOÑI TAILERRAK



- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ADEITASUN AUTOAK DOAN
- KRISTAL ALDAKETAK



Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Olaia Macia Mendia, Ainhoa Calvo Fuentes eta Nekane Lakuntza Mazkieran.

Kronologia

1991 Kinta batzuek aurrenekoz opilak saldu eta dirua eskatu zuten.
2000 Aurrenekoz erregina bat aukeratu zen.
2001 Bi erregina aukeratu ziren estreinakoz.
2005 Bi neskek aurrenekoz zortzikoa dantzatu zuten.
2008 Neska ia denek dantzatu zuten zortzikoa.
2013 Neska-mutilek elkarrekin eskatu zuten. Ordura arte neskek Santa Ageda bezperan eta mutilek egunean.
2024 Estreinakoz 60 urte betetzen duten kintoek erreginak aukeratu zituzten.

gutxi gorabehera auzoka banatzen zela. Neskak opila uzten zuenean jota bat dantzaten zen. Eta, horrela, auzoz auzo. Ez dut gogoratzen zenbat pezetatan saldu ziren opilak orduan. Koaderno batean egoten zen dena apuntatuta. Ez dakit jarraitzen duen.

A. Bai, orain ere erabiliko dugu. Zuen kasuan?

O. Bakoitzak berea eginen du. Guk guztiak jasoko ditugu.

Egun hori oso luzea izaten da.

A. Bai, 17:00ak aldera bazkalduko dugu.

N. Gu ere berdin ibili ginen. Azkenean luzatu egiten da eguna. Baina ez ginen denak batera bazkaltzera joaten. Uste dut elkarrekin egun batean bazkaldu genuela, gainontzeoetan bananduta. Hitz egin zen, baina ez zen atera. Gu ere bakarrik bazkaldu genuenetan oso ongi egon ginen. Eta mutilekin bazkaltzera elkartu ginenean ondo hartu gintuzten.

Zortzikorik ez zenuela dantzatu aipatu duzu.

N. Ez. Gure kinta ez zen izan emakumezkoak estreinakoz zortzikoa dantzatu zuena. Urte batzuk pasa ziren hori gertatu zenerako, bost-edo. Ez dut gogoratzen.

Bazkari-afariak lotzen ariko zarete zuek.

O. Hori egitetik etorri gara. Lau buruzagiak horretan egon gara. Alkatearekin ere egon gara. Bai, dena antolatzen gabilta.

Horiez aparte, zein lan egin behar dituzue?

A. Astoa lortu, astoak eramanen dituen zakutoak lortu, diruaren antolaketak, bankura joan, fidantza ordaindu... gauza asko. Batzuetan dantza entseguetan ordena jartzea ere tokatzen zaigu. Asko gara, eta beharrezkoa da.

Dantzarako ordena lotuta duzue? O. Zozketa egin genuen, eta egunen arabera bikote bakoitzak noiz dantzatu behar duen zehaztuta dago.

Zuek beste plan batzuk zenituzten, ez zineten buruzagi izan behar...

A. Zorionez, kuadrilla berekoak gara, baita gure dantza bikote izan behar zutenak ere.

O. Bikotez aldatu, eta kitto.

Egia da beste herrietako gazte batzuk kinto ospakizunak Altsasun egiten dituztela?

A. Bai. Batzuek hemen familia-edo dutelako, eta batzen dira. Baina ez dira asko izaten.

O. Aitonarekin hizketan, esan zidan bere aitaren garaian Iturmendiko bat zegoela kinto ospakizunean. Eta bost ziren. Garai hartan ere halakoak egiten ziren.

A. Festa hobea da Altsasun, eta horregatik egiten dute.

Garai bateko kintoek plazan musika jartzen zuten. N. Ez nago ziur. Astearte inauteriko musika kintoek ordaintzen zuten. Ez dut uste larunbatekoa izango zenik. Ez dakit orain horrela den. Baina, hain justu,

taldeko abeslariari, edo haren aitari, zerbait gertatu zitzaien eta ez ziren etorri. Ez zen musikarik egon. Baina, bai, guk ordaindu behar genuen.

Kinto gazte gisa, aurretik elkartu zineten?

N. Santa Ageda ospakizuneko larunbatean bertan elkartu eta kinto bazkaria egin genuen gainerako kintodekin batera. Aurreko urtean ez ginen elkartzen kafea hartzera. Bakarrik kinto izan behar genuen urtean, ostiraletan egiten genuen.

Zuek hasi zarete kafeekin?

O. Gu larunbatetan elkartzen gara. Larunbatean hasi ginen. A. Elkartu eta kafea eta kopa bat hartzen dugu. Eta hartzen dugun tabernan parranda egiten dugu.

Ilbeltzaren 6an guraso eta senide pila zeuden Gure Etxea eraikinaren ondoan. Zuen garaian hala zen?

N. Zozketa udaletxean egiten zen. Egongo ziren. Baina ez dut gogoratzen. Nire gurasoak uste dut ez zeudela. Baina gurasoen presentzia ez zen nabaria.

Gaur egun, ordea, bai.

A. Bai, bai. Kintoak baino guraso gehiago zeuden, askoz ere gehiago. Gure Etxea eraikina beteta zegoen.

O. Gainean egoten dira, laguntzen. Amak esaten dit: "badirudi ezkondu behar zarela. Mundu guztia zoriontzen ari zait" Ez dakit zergatik baina.

Buruzagi kargua betiko da. Nola antolatzen zineten 2000. urtean?

N. Hiru buruzagi ginen, baina urteroko bazkaria antolatzeke jende gehiagoren laguntza izan dugu, nire lagunak eta. Lehenengo urteetan, autobusa hartuta, sagardotegira joaten ginen. Irargartzeko kartelak jartzen genituen tabernetan. Haietan 2000ko kinta, bazkaria zein egunetan izanzenen, zenbat diru jarri behar zen eta kontu korrontearen zenbakia jartzen genituen. Dirua bankuan sartuta egiten zen bazkarirako izen ematea. Uste dut ez genuela taberna batean izena emateko eskatu. Behar bada lehenengo urteetan, baina ez dut gogoratzen.

Zuek sare sozialetan...

A. Ongi. Duela urte pasa taldea sortu genuela.

O. Pasa den urtean kinto gazte ginenez, kafea hartzera elkartzen ginenez, taldea sortu genuen.

Lehen 25. urteurreneko erakusketak aipatu duzu. Zer ari zarete antolatzen?

N. Erakusketa eta gainontzeko guztia prestatzeko zortziren bat kinto elkartzen ari gara. Urteurrena prestatzeko lanak banatu ditugu. Posta elektronikoko helbide bat eman dugu norberak bere argazkiak bidal ditzan. Bizpahiruren artean jasotako argazkien artean aukeraketa egin eta erakusketa prestatuko dute. Niri hori ez zait tokatu.

Nola ospatuko duzue?

N. Gure Etxea eraikinean eginen dugu bazkaria. Ondoren poteoan ibiliko gara. Plazara atera eta zortzikoa dantzatuko dugu. Auzatea izanen dugu, eta irauten dugun arte.

60 urte bete zituzten emakumezko kintoek zortzikoa dantzatu zuten joan zen urtean. Animatuko zarete?

N. Ikusiko dugu (barrez). Animatuko gara, bai.

Kintoen zein oroitzen duzu?

N. Oso oroitzen ona (barrez). Ongi pasa genuen. Ez zen horrelako ezer berezirik gertatu. Dena oso ongi joan zela uste dut.

Harremanak sortzen dira?

N. Bai, kuadrillatik kanpoko jendearekin elkartzen zara. Egia da gero harremana gertuko lagunekin mantentzen duzula, baina tratu gehiago duzu jende gehiagorekin.

Zuen kinto ospakizuneko zein oroitzen gorde nahiko zenituzkete?

A. Onak. Esperientzia bakarra da. O. Azkar pasako dela uste dugu. A. Egia da buruzagiak izatean sartuagoak gaudela eta, dagoeneko, disfrutatzen gaude.

O. Hori da, dagoeneko sartuta gaude.

A. Polita izango da.

Urte bat gozaten daramazue!

A. Bai, baina desberdina da.

Hasi zarete eguraldi ona eskatzen?

O. Bai. Ea zer tokatzen den. A. Espero dugu euririk edo elurrik ez egitea.



ASTEKOA

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Zapalgailua ortzadarraren atzean

Ortzadarren irideszentziaren itxura ezin ederragoak liluratu ahal gaitu, flauta jole batek suge bat dantzaz dezakeen bezala, baina ez dezagun ahaztu eguzki izpi bat ur tanta baten zehar igarotzean sortzen den efektu optiko hutsa dela.

Argiaren kolore guztiak nabaritzen ditugula eta dena argi eta garbi ikusten dugula uste arren, kotzeko argi luzeen antzera, zenbaitetan sutxakurrak itsu gaitzake.

Kontuz, ikusten duguna edota entzuten duguna egiazkoa ez delako beti, izena duen guztia (gure-gurea den esapideak diotenaren kontra) ez delako beti, eta, aldiz, izenik ez duena izan daitekeelako.

Eta hortxe dago gure arriskurik handiena, ez baitugu ikusten, ez baitugu entzuten, ez baitugu izenik ematen horrenbeste argiren atzean izkutatzen den zapalgailuari, gu birrintzera datorrena.

Itsaslaminek kantuak ederrak dira, ortzadarraren koloreak bezain bat, eta haien kanten doinua hain gozoa izanik, ez gara

KONTUZ, IKUSTEN DUGUNA EDOTA ENTZUTEN DUGUNA EGIAZKOAZ EZ DELAKO BETI

askotan abstien letraz konturatzen eta musikarekin batera datorren mezua irensten dugu otzan, apalki, begi distiratsuekin, irriño batez ezpainetan.

Baina itsaslaminez gainera, sirenak ere badaude

itsasoan eta haiek ere badakite kantatzen. Haien kantuen kortxeak labanak bezala gure burmuinetan sartzen badira, konturatu gabe beren aho zorrotzekin ebakidurak sortuko dizkigute haien musika aditzen eta ortzadarraren koloreak miresten ari garen bitartean.

Koloreen garaian bizi gara, ilunpean dagoen errealitatea ikusten uzten ez duen argi aizunarenean. Sirenen kantuen garaian. Egia zapaltzeko eta gezurra inpunitate osoz goraiatzeko askatasunarenean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXE eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Behin betiko

SAKANAKO SARE

Mila esker denoi, berriz ere Bilboko kaleak ilusioz eta esperantzaz betetzeagatik beste behin ere euskal presoentz eskubideak aldarrikatzen.

Eskerririk asko herri honetako emakume eta gizonei, argi eta ozen esateagatik preso, erbestera eta deportatuen egoera konpondu ezean ez dagoela normaltasunik.

Izan ere, KONPONBIDEA da elkarbizitzaren oinarria, justiziazko bakera hurbiltzeko bide bakarra delako.

Aurrera goaz. Etapak betetzen goaz. Dударik gabe nahi genukeen baino motelago, baina ongi goaz. Aspaldi utzi genituen atzean urrutze politikak eta haiek eragiten zituzten eskubide urraketak, bakartze ziegak,

lehen graduan mantentzea zigorrak bete arte. Eta berriki, gainera, garaipen bat lortu dugu blokeoari eta krispazioari eusten tematzen direnen kontra: bukatu da betetako zigorrak aintzat ez hartzea. Bukatu da presoek jasan behar izan duten zentzugabekeria juridiko nagusietako bat.

Nolanahi ere, salbuespen batzuk indarrean daude oraindik. Batetik, duela 20 urte baino gehiago, euskal gizarteak egun bizi duenaz guztiz bestelako garaietan onartu ziren legeek eragiten dituzten salbuespen neurriak, eta, bestetik, espetxeetako gestioan egunero aplikatzen direnak.

Ez dugu inolako pribilegiarik eskatzen, espetxe politika arruntaren aplikazioa baizik, salbuespenik gabe, diskriminaziorik gabe, abagune politikoaren menpe egon gabe.

Irmo adierazi behar dugu euskal presoek, 2011z geroztik, bakearen eta elkarbizitzaren aldeko urrats gehiago egin dituztela Espainiako eskuin politiko eta judizialak baino.

Gure herrian gertatu diren eskubide urraketa guztien gaineko memoria kolektiboa eraikitzeko, nahitaezkoa da kontuan hartzea baita ere estatuko terrorismoak eragin dituen hilketak, torturak eta agintearen gehiegikeriak. Indarkeriarik gabeko bakeak ez digu balio baldin eta bake horrek berekin ekartzen baditu bidegabekeriak eta memoriaren ezabaketa.

Iraganeko belaunaldiei zor diegu. Baina, batez ere, etorkizuneko belaunaldiei utzi behar diegu guk geure aurrekoengandik jaso genuena baino hobea izango den gizarte bat.

GUTUNA

Sunsundegui, elkartasuna ezbaian?

SAIOA ARREGI ETA ITZIAR PEREZ

Sunsundegui ixteko arrisku larriari dago eta denbora aurrera doan heinean langile familien egoera okertzen ari da. Testuinguru honetan, Sunsundegui langileak asanblada baten bitartez antolatuta dira eta hainbat ekintza aurrera eraman dituzte, haien artean, abenduaren 22ko manifestazio arrakastatsua. Gainera, orain arteko kontzentrazioetan ehundaka pertsona bildu dituzte. Hala ere, denondako jakina da Sunsundegui

lantegiaren inguruko iritzi orokorra zein den. Eta iritzi hauek langileen arteko elkartasuna antolatzea zailtzen dute. Zer da langile on bat izatea? Eta langile txar bat? Zer ikuspuntutik neurtzen dugu hori?

Guztiz zeharkatuta gaude produktibitatearen kulturarengatik. Honen guztiaren irabazle argiak daude eta ez dira langileak. Enpresariak irabaziak ateratzen dituzte langileen esfortzutik. Beraien interesa da langile batek bere onena ematea, hamarrek langilea izatea. Gainera, horrek ez du bermatzen laneko eskubideak

eta lanpostua mantentzea, izan ere, kapitalaren mende daude. Langile bat hamarrera heltzen ez denean berehala eta etengabe epaitzen dugu. Bizi dugun sistema kapitalista honetan, balore horiek nori egiten die mesede? Mentalitate honetatik erabakitzen dugu nork merezi duen elkartasuna eta nork ez.

Umiltasunez, gure ustez, pentsamolde honen inguruan hausnartu behar dugu. Etorkizuna iluna da, horren adibide, Sakanako eta Nafarroako egoera. Honi aurre egiteko langileen arteko elkartasuna ezinbestekoa da, hausturarik gabe.


www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Onerako edo txarrerako, azken asteak

Sunsundeguiaren etorkizuna ilbeltza bukaera edo otsaila hasieran argituko da. Aldi baterako enplegu erregulazio espedientea luzatu egin da, oraingoan langile guztiak hartzen ditu. Enpresa batzordeak manifestazioa deitu du

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Behin bakarrik luza zezakeen, bi hilabeterako. Eta hala egin du Sunsundeguiako hartzekodunen konkurtsoa kudeatzen duen administratzaileak: enpresaren aldi baterako lan erregulazio espedientea luzatu du. Ilbeltzaren 19an, igandean, despeditu beharrean apirilaren 30ean bukatuko da. Horrek ez du esan nahi ordura arteko epea dagoela enpresa bizirik mantentzeko. "Halako prozesu batek bete beharreko lege epeak ditu eta inbertitzailea bilatzekoak bukatzen ari dira. Ilbeltza akaberan edo otsaila hasieran jakin beharko genuke inbertitzailearik dagoen edo kaleratzen gaituzten", azaldu du enpresa batzordeko kide batek.

Sunsundeguiako langileen ordezkariak jakinarazi dutenez, konkurtso administratzailea haiek inbertitzailearen 7an jarri zen harremanetan, espedientearen epea luzatzea eskatuko zuela azaltzeko. Ilbeltzaren 10ean aurkeztu zuen epaitegian. Luzapen agiria sindikatuen adostasunik gabe aurkeztu da. Aurrekoaren baldintza berak ditu, hau da, enpresak ez du langileen soldataren gaineko osagarriarik jarri, baina estra eta oporren %100 mantentzen ditu. "Aldaketa bakarra da, oraingoan langile guztiak, 351k, gaudela espedientearen barruan. 60 urtetik gorakoak ere sartu ditu. Administratzaileak esaten zuen zor gehiago ezin zela sortu. Gainera, lantegian ez dago lanik", azaldu dute enpresa batzordetik. Beraz, astelehenetik aurrera espedientearen barruan izanen dira orain arte lantegira joaten ziren 60 urtetik gorako langileak (13 bat) eta aurrejubilatutakoak (18 bat).

Enpresa autobus egileko langileak lastailaren 11z geroztik daude aldi baterako enplegu erregulazio espedientean. Horrek esan nahi du beraien langabezia



Enpresa batzordeko kideak manifestazioaren buruan. ARTXIBOA

"BADAKIGU INTERESA DAGOELA ETA AURRERA EGIN DEZAKEELA INDUSTRIA PLAN BATEKIN"

saria kobratzen ari direla. "Dagoeneko lau hilabete dira. Aurretik izan ditugu halako beste espediente batzuk, beraz, langile batek berak ere ez dugu bi urteko langabeziarik. Eta egueira zailtzen ari da: beste enpresa batzuetatik etorritako langileak langabeziarik gabe gelditzen ari dira. Hau da, langabezia daude, kobratu gabe".

Atzera ere, gogorarazi dute, "enpresak zabalik segi zezan, langileok eskubideak eta dirua galdu ditugu azken urtetan. 2011z geroztik 500 euro hileroko. Langile bakoitzak 78.000 euro galdu ditugu. Langileoi ez digute ezer oparitu".

Inbertitzailea

Kontsultatutako enpresa batzordeko kideek azaldu dutenez, "inbertitzailearik badago, oso isilik dute, guri ez baitigute ezer

zala egitea da, gobernuak enpresa euro bakarragatik oparitzea".

Manifestazioa

Enpresa batzordeak deituta, *Sunsundegui ez itxi!* leloa duen manifestazioa abiatuko da Altsasuko BM-ko aparkalekutik igandean, 12:00etan. Enpresa batzordeko kideek esan dutenez, "enpleguaren suntsiketa gure inguruan agertzen hasi den une hauetan, Sunsundeguiaren proiektuak Altsasurako, eskualderako eta Nafarroarako duen garrantzia gogorarazteko unea da". Atzera ere azpimarratu dute, "Sunsundegui produktua eta merkatua duen enpresa bat da. Badakigu interesa dagoela eta aurrera egin dezakeela industria plan batekin". Manifestazioaren bidez "eragile guztiei inplikazioa eskatu nahi diegu, Altsasuko

lantegiaren etorkizuna eta enplegua bermatu ahal izateko". Eskaera argia egin dute: "inbertitzaile bat behar dugu, industria plan bat duena, baita sektore publikoaren laguntza eta kontrola ere. Langileek eta Nafarroako gizarteak egindako ahalgina guztiendako enplegu eta etorkizun bihurtu behar da".

Horregatik, langileen ordezkariak sakandarrak manifestazioan parte hartzea deitu ditu. Aldi berean, ibarreko udalak, Altsasuko Dendarien Elkartea, alderdi politikoak eta hainbat eragile gonbidatu dituzte ere. Guztiek "enpleguaren aldeko eta Sunsundeguiaren etorkizunaren aldeko manifestazio honi babesa emateko. Parte hartze zabaleko mobilizazioa izatea nahi dugu, Iruñean entzun gaitzate!".



URTARRILAK 20-24

- 10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15** Pentsaren azalak
- 10:20** Albisteak eta kirolak
- 10:30** Hizketan
- 11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin
- 14:00** Errepikapena

Hizketan

- Urtarrilak 20** Maialen Larraza eta Nahia Goikoetxea Pala txapelketaz
- Urtarrilak 21** Sakanako inauterietako pertsonaiak Mitaroan
- Urtarrilak 22** Bertso saioa (*Bertsoa.eus*)
- Urtarrilak 23** Jon Arretxeren *Touré* liburuaz
- Urtarrilak 24** Zama azken doinuak jaialdia eta agenda berezia





Altsasun egindako bileran Ainara eta Cristina ezkerretik hasita 3.a eta 4.a.

"Proba euskaraz egitean balorazioa errealagoa da"

CRISTINA MAZKIARAN ETA AINARA LAKUNTZA LOGOPEDAK

Haurren hizkuntza atzerapena neurtzen duen proba euskaraz sortzeko prozesuan parte hartzen ari dira

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Badira hizkuntza atzerapena duten 4 eta 8 urte arteko haurrak. Hizkuntza atzerapen hori zuzentzeko aurretik diagnostikoa egin behar da. Horretarako, probak egiten dira, gaztelaniaz. Euskaraz egiteko aukera orain sortuko da. Haur Euskaldunen Hizkuntza Gaitasunaren Neurketa (HEHGAN) egitasmoa Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko campuseko Elebilabek, Baionako Iker laborategiak eta Lesakako Guztiok elkarrekin garatu dute.

Horretarako Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdearen dirulaguntza lortu zuten 2021ean. HEHGAN egitasmoa Hizkuntza Garapena Aztertze (HIGA) tresnaren osagarria da. Ipar Euskal Herrian 2016an

"HAUR GEHIENAK EUSKARAZ IKASTEN DUTE, ETA EUSKARAZ BALORATZEKO EZ DAGO TRESNARIK"

hasi ziren tresna hori garatzen. Egitasmoan buru-belarri sartu dira Altsasuko Ubide kabinete psikopedagogikoko Cristina Mazkianan Zufiaurre logopeda eta pedagogoarekin eta Ainara Lakuntza Mazkianan logopedarekin. **Hasteko, zer da haurren hizkuntza atzerapena?** **Ainara.** Beraiek bere adinerako helburu batzuk lortu ez badituzte hizkuntza atzerapen bat da goela esaten da. **Zergatik izaten da haurrengan hizkuntza atzerapen hori?**

Cristina. Batzuetan arrazoi fisiologikoak dira.

A. Ahoskatze arazoak, hiztegi falta edo esaldiak egiteko moduagatik... Beste batzuetan behar bada familiako batek ere hizkuntza atzerapen bat izan du. Eta harremana dagoela dirudi. Baina arrazoi argi-argi bat...

K. Badaude batzuk txikitatik entzumen arazoak dituztenak.

A. Txikitatik ez dute ongi entzun, beraz, gero adierazteko ere zailtasunak dituzte.

K. Arrazoi asko daude.

A. Gaur egun pantailek ere hizkuntza atzerapenean eragina dutela ikusten ari da.

Noiz edo nola atzematen da?

A. Batzuetan eskolan nabaritzen dute, beste batzuetan gurasoek. Edo beste batzuetan pediatra eta medikua dira atzematen dute, haurrei jarraipen egiterakoan nabaritzen diete.

Diagnosia nola egiten da? Probaren bat egiten zaie haurrei?

A. Adinaren arabera. Txikiak direnean, ikusten denean bi urtetan-edo ez dituztela zenbait hitz esan, hor, jada, prebentzio moduan lan egiten hasten da. Aurrerago probak pasatzen hasten dira.

Zeinek egiten ditu proba horiek?

"PROBAK PASA DITUGU, TXOSTENA NOLA PRESTATU BEHAR DEN AZTERTZEN ARI GARA ORAIN"

A. Batzuetan eskolan egiten dituzte, eta beste batzuetan hona etortzen dira.

Nolakoa da proba hori?

K. Denetarik dago. Batzuk soinuekin dira, diskriminazioa egiten duten ala ez jakiteko. Beste batzuk galderak dira, joko moduan egiten dira.

A. Denak erdaraz dira. Beraz, hizkuntza atzerapena duen haur euskalduna dugu, baina balorazioa gaztelaniaz egiten dugu. Arazo hori dugu.

Zergatik gaztelaniaz?

K. Euskaraz baten bat badago, baina fonetika aztertze. Baina egitura aldea aztertze probarik ez dago. Zergatik? Proba bat egiteko behar duzu hura jende askok egitea. Beste alde batetik, populazioa leku askotakoa izan behar du. Lan handia da eta, alde horretatik, euskaraz nahiko murriztuta gaude. Orain hasi gara. Beno, badaramatzate urteak.

Zer garrantzia du haurrek proba euskaraz pasatzeak?

A. Eremu honetan haur askok dena euskaraz hitz egiten dute. Esate baterako, hiztegia ezagutu dezakete erdaraz eta euskaraz ez, edo alderantziz. Balorazioa errealagoa izateko garrantzia du proba euskaraz pasatzeak, jakiteko ea euskaraz hizkuntza atzerapen hori dagoen, edo egitura aldetik dagoen.

Zeinek hartu du proba euskarazteko ardura?

A. Proba berri bat sortu da. Bi pertsona daude atzean. Bat Maria Jose Ezeizabarrena Segurola linguista da, Euskal Herriko Unibertsitatean lan egiten du. Bestea Marie Pourquié, Baionako Iker Laborategian egiten du lan berak. Probako irudiak Clémence Itssagak egin zituen. Proba hori Ipar Euskal Herriko haurrak pasatzen ari dira. Gu proiektu horretan parte hartzen hasi ginen, behin proba prest zegoela. Gu hemengo haurrei proba pasatzen hasi ginen.

Haiek egindakoa probatzeko jendea behar zuten?

A. Hori da. Nafarroan Logopeden Kolegioa 2023an sortu zen. Handik mezu bat bidali zuten, proiektuan parte hartzeko prest inor ote zegoen galdezka. Eta gu prest geunden. Egia esan, euskaraz lan egiten duten logopeda asko ez daude. Beraz, beraiendako ere pixka bat zaila izan da parte hartzeko prest zegoen jendea aurkitzea. Gu bide horretatik sartu ginen.

K. Guri proiektu berrietan parte hartzea asko gustatzen zaigu. Ez bakarrik hemengo lana, baizik eta pixka bat zabaltzea eta gauza berriak ezagutzea eta egitea.

Haiek luze daramate proiektuarekin?

A. Bai, zeren proba osoa beraiek prestatu dute.

Urtebeteko probaldian zer sentitu edo ikusi duzue?

A. Guri oso proiektu polita iruditzen zaigu. Eta beharrezkoa, oso beharrezkoa. Etorrtzen zaizkigun haur gehienak euskaraz ikasten dute, eta euskaraz baloratzeko ez dago tresnarik. Gure lanean ere faltan sumatzen ditugu horrelako proiektuak.

Erabili duzue dagoeneko?

A. Ez dugu erabili. Proba nolakoaren ikusteko haur batzuekin balorazioa egin genuen. Gutxi gorabehera gaztelaniakoaren egitura bera da.

Balorazioa egiteko adin txikioekin aritu zarete. Familien baimenarekin, jakina.

K. Bai. Eta eskertzekoa da familien erantzuna. Proiektuaren berri eman genien eta proba beraien seme-alabekin praktikan jartzeko baimena eman ziguten. Familien erantzuna oso positiboa izan da, eta eskertzekoa da.

Balorazioa egin duzue eta bidali diezue, zer pauso gelditzen dira?

A. Probak pasa ditugu, orain txostena nola prestatu behar den aztertzen ari gara. Horretarako, Altsasun elkartu ginen abenduaren 14an, txosten eredu bat prestatzeko: emaitzak nola aurkeztu, balorazioa nola interpretatu. Hori da geratzen zaigun pausoa.

Aurretik bilera gehiago eginen zenuituzten, ezta?

A. Orain arte Donostian egin izan ditugu.

Behin hori eginda, homologatu beharko da?

A. Ez dakigu zer prozesu jarraituko duten.

Hala ere, aurki lan tresna berri bat izanen duzue.

K. Hala espero dugu.

A. Ongi atera dadila, hala balorazioak euskaraz egin ahal izateko.

K. Iparraldean dagoeneko erabiltzen ari dira.

Proiektuak logopeden arteko sareak estutzeko balio izan du?

K. Bai. Jendea ezagutzeko, haien lan egiteko modua ezagutzeko, lan moduak partekatze... Egia esan, nahiko antzeko ikuspuntuak ditugu.

Egokiren itxierak 12 langile kalean utziko ditu

Hartzekodunen konkurtsoan dago. Aldaketarik ez bada, itxiera besterik ez da aurreikusten

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

PVCzko leiho eta ateak egiten dituen Egoki enpresa itxi egingen dute. Hala baieztatu du ELA sindikatuko Sakanako arduradun Gorka Viergek: "azken hilabeteak kaxkarrak, eskasak, izan dira. Eta langileei eguberrien aurretik enpresa itxiko zutela jakinarazi zieten". Viergek azaldu duenez, "enpresa hartzekodunen lehiketean dago. Epaitegiak administratzaile bat jarriko du enpresa itxeko". ELAko kideak aitortu duenez, "ez da itxiera beste konponbiderik sumatzen. Enpresa txikiak eskuratzeko interesa ez da izaten. Honek itxura txarra du, ez da gidoi aldaketarik aurreikusten, itxiera baizik".

Dozena bat pertsona izanen dira lanik gabe geldituko direnak. ELAko Sakanako arduradunak azaldu duenez, "adinari erreparatura, plantillan bi talde daude. Batetik, 60 urte inguru dituzten sei langile, eta itxiera albistearekin kolpe handia hartu dutenak, jubilazioa gertu ikusten zutelako. Bestetik, duela bizpahiru urte enpresan lanean hasi ziren 30 urte inguruko gazteak".

Viergek azpimarratu duenez, "itxiera penagarria da. Gazteei Sakanan lan egiteko aukera gutxiago gelditzen zaie".

Altsasun hasi dira alokairurako 21 etxe egiteko lanak

Altsasuko Kaltzada kalean alokairuko babes ofizialeko 21 etxebizitza eraikitzen hasi dira aste honetan. Etxe horiek bereziki 35 urtetik beherako gazteei zuzendutakoak, bai eta desgaitasuna edo bestelako gizarte premiak dituzten pertsonen ere. Haietako bat eskuratzen interesa duenak Nasuvinsaren eskatzaileen erroldan izena eman behar du.

Teknoadineko programak hitzarmen bat izanen du

Gizarte Zerbitzuek eta Nafarroako Gobernuak sinatuko dute. "Eremu publikotik bakardade ez hautatuari erantzun behar diogu, egoerak eskatzen duen larritasunaren eta premiaren arabera politikekin, bizitza duina izateko eskubidea bermatzeko"

SAKANA

Ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateetako lehendakariak, Unai Razkin Iriartek, Silbia Sesma Nazabalek eta Juanjo Goikoetxea San Romanek, Gizarte Eskubi-deetako kontseilari Carmen Maeztu Villafrancarekin bilera izan zuten ilbeltzaren 8an. Sakandarrek bakardade ez hautatuari aurre egiteko martxan duten Teknoadineko proiektu pilotuari buruzko azalpenak eman zizkioten. "Bilera horretan orain arte egindako lanaren balorazioa eta 2025erako helburuen balorazioa eta etorkizunera begirako ibilbide orria jorratu genituen. Bai departamentuko ordezkariak bai guk positiboki baloratu dugu proiektua. Gainera, proiektua garatzen segitzeko, erakundeen artean lankidetzan aritzeko beharra ikusi dugu".

Razkinek azaldu duenez, "bileratik pozik atera ginen. Balorazio positiboa egiten dugu. Bi aldeak modu aktiboagoan elkarlanean aritzeko eta sakontzeko prest gaudela ikusi dugu". Gizarte Zerbitzuetako ordezkarien eta kontseilariaren sintonia onaren adierazle da bi aldeek sinatuko duten hitzarmena. "Momentuz 2025 urterako besterik ez da", zehaztu du Iriartek.




Juanjo Goikoetxea San Roman, Silbia Sesma Nazabal eta Unai Razkin Iriarte. UTZITAKOAK

Hirukoak nabarmendu duenez, "bakardadez hautatua eta horren ondorioak egunez egun larritzen ari den gizarte arazoetako bat da". Sakanan horri aurre egin nahi zaio Teknoadineko programaren bidez. "2025erako lortutako finantzazioak aukera ematen digu diagnostikoarekin eta bakarrak dauden pertsonen identifikazioarekin jarraitzeko, baita boluntarioen kopurua eta prestakuntza zabaltzeko eta sakontzeko ere", argitu dute. Abiapuntu horrekin, "etorkizuneko erroka da egoera horiei aurre

egiteko eta pertsona horien bizitzak duintzeko beharrezkoak diren ekintzak eta dinamikak definitzea. Horretarako, erakundeen arteko lankidetzan sakondu behar dugu, eta dinamika horiek beste gune batzuetara zabaldu".

Gaztigatu dutenez, "gizarte premia baten aurrean gaude, ia neurririk eta jarduera programarik gabe. Eremu publikotik erantzun behar dugu, egoerak eskatzen duen larritasunaren eta premiaren arabera politikekin, bizitza duina izateko eskubidea bermatzeko".



Lur mugimenduekin hasi dira lanak.

 **Egurre**
ETXENA ERABILTZEKO EGURRA, Lurra eta demetitua.

Kalitatezko egurra eta pelleta

ETXEKO ATERAINO

☎ **662 11 77 45**

Txooooo!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

Irekiera **URTARRILAK 18**



ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

Txorizale asko elkartu ziren Olatziko topaketan

Etengabeko jende joan-etorria izan zen Olatzagutiko 6. txori erakusketa eta truke jardunaldian. Hamabost bat kide dituen elkarte antolatzailea pozik zegoen erakusketak izan zuen harreragatik. Ekimenak ere txorizaletasuna sustatzeko balio

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Aralar mendia ornitologia elkarteak antolatuta, Olatzagutiko frontoiak seigarren txori erakusketa eta trukea hartu zuen domekan. Kantxan barna jarritako mahaietan 47 bat txori hazle egon ziren beraien hegaztiak erakusten. Frantzia, Valladolid, Burgos, Aranda de Duero, Santander eta Hego Euskal Herriko hazleak elkartu zituen topaketak. "Joan zen urtean baino hamar bat gehiago", zehaztu zuen Sergio Flores Barrosok, elkarte antolatzaileko kide olaztiarrak. "Gainera, gure elkarteko kide batek denda itxi zuen eta gelditzen zitzaion materialaren zati bat salgai jarri du hemen".

Mota ugariatiko hegaztiak ikusgai izan ziren Olatzagutian. "Babestuta ez dauden eta etxean haz daitezkeen hegaztiak dira: kanarioak, basakanarioak, mistoak, gailupak, mexikar gailupak, loroak, karnabak, agaporniak, ninfak... denetarik dago". Flore-



Txorizaleek publikoari hazitako hegaztiak erakutsi zizkioten.

sek zehaztu zuenez, "ikusgai dauden txori guztiak hazleek hazitakoak dira, guztiak eraztunduta daude".

Antolatzaileak pozik zeuden erakusketak izandako harrerarekin. "08:00etan zabaldu ditu-

gu atek eta 10:30eraino jendetza egon da. Askok kanpokoak ziren. Badakite zer dagoen. Hazleei aurretik hots egiten diete zer nahi duten azalduz. Guztia ikusi, erosi eta alde egiten dute". Batzuek txoriak ero-

si zituzten, beste batzuk trukatu egin zituzten. Izan ere, hazleak hegaztien odol kidetasuna saihesten ahalegintzen dira, "beti berdinarekin ezin baita jarraitu", zehaztu zuen elkarteko kide Gabi Ormazabalek. Halako erakusketak txorizaleen haztegieta "odol berria sartzeko" baliatzen dituzte.

Goizak aurrera egin ahala, 10:30etik aurrera, "herritarrak eta sakandarrak dira etortzen direnak", azaldu zuen Floresek. Horiek mahaiz mahai kuxkuxeatzen ibili ziren. Ormazabalek esan zuenez, "hainbeste txorizale elkartzea pozgarria da. Jende dezente etorri da. Jendea gustura dago. Hau ikusteak txorizaleoi poz handia ematen digu". Jarratzeko motibazioa zela gaineratu zuen Ormazabalek.

Elkarteko kideak azaldu duenez, "erakusketari esker olaztiar askok bikoteak erosten dituzte, probatzeko. Kalean ere galdetzen digute. Eta etxean txitoak lortzen saiatzen dira ere. Azken finean, esker oneko jarduera bat da". Hala ere, Ormazabalek aholkuak eman zituen: "poliki-poliki hastea, txori gutxirekin. Ikasi, eta dakien batekin egon jakiteko zer janari eman behar zaien, gauzak nola egin behar diren azaltzeko. Ez da zaila, baina jakin egin behar da".

Elkartean hiru sakandar daude, iturmendiak bat eta bi olaztiar. "Txoriak hazten hasi nahi dute bi gazte sartzear dira".

Trafiko ezbeharretan sakandar bat hil zen joan zen urtean

Sakandarrek trafiko ezbeharrek izan zituzten joan zen urtean. Eta ibarreko errepide sarean ere izan zen istripurik. Horien urteko balantzea egiterakoan, zoritxarrez, sakandar baten heriotza nabarmentzen da. Auto istripu batean hil zen emakumezkoa. Zoritxarrez, urteko hamargarren egunean Izurdiagako 28 urteko gizona hil zen Leteko bidegurutze ondoan izandako trafiko ezbehar baten ondorioz.

Nafarroan 2024an 23 pertsona hil ziren trafiko ezbeharretan: 13 auto edo furgonetetan zihozten, 4 motorretan, 3 bizikletan, 2 kamioietan eta bakarra traktorean. Trafikoak ez zuen oinezkoen heriotzarik eragin. 23 hildakoe-tatik 20 gidariak ziren. Bestalde, istripuetan hildako 23 pertsonetatik 19 gizona ziren eta 4 emakumezkoak. Adin tarteari erreparatuta, gehienak, 9, 45 eta 64 urte artean zituzten. 25 eta 44 urte arteko 6 pertsona hil ziren eta 14 eta 24 urteko 5. Azkenik, 64 urtetik gorako hiru pertsona hil ziren.

Istriputan hildakoak

Urtea / Hildakoen kopurua

- 2017 3
- 2018 3
- 2019 0
- 2020 2
- 2021 2
- 2022 2
- 2023 1
- 2024 1

Lan istriputan hiru sakandar hil ziren joan zen urtean

Lantokian zeudela, lan istripuen ondorioz, hiru sakandar hil ziren 2024an. Hiru hildakoak gizona ziren. Haietako bik eraikuntza sektorean lan egiten zuten, industrian besteak. ELAren arabera gutxienez 66 langile hil ziren lan istripuan Hego Euskal Herrian. LABen arabera, gutxienez 64 dira. Nafarroan 24 eta 17 hildako zenbatu zituzten.



Kintoen atzerako kontua hasita

Altsasun 2006an jaiotako 57 gaztek osatzen dute aurtengo kinta, 29 emakumezkoak eta 28 gizona. Ilbeltzaren 6ko eguerdian urteko kintoen buruzagien zozketa egin zen Gure Etxea eraikinean. Olaia Macia Mendia, Ainhoa Calvo Fuentes, Kepa Amillano Santano eta Gorka Diaz Diego dira kintoen buruak. Gazteek kinto ospakizunak Santa Ageda

egunean hasiko dituzte, otsailaren 5ean, asteazkenarekin eta domekara arte. Bost egunetan, iluntzean, zortzikoak dantzatzeko dituzte kinto guztiak. Horietan trebatzeko entseguak ilbeltzaren 10ean hasi zituzten Burunda frontoian. Aitziber Etxaiz Soria, Edurne Somocurcio Gonzalez eta Nerea Mazkieran Lopez de Muniain dira irakasleak.



Bi emakumezko udaletxearen ate parean. ARTXIBOA

Altsasuko Udalak inbertsioetara milioi bat euro bideratuko du

Eta beste milioi bat pasarekin udaletxearen erreforma egingen du Altsasuko Udalak, besteak beste eskolan, Ondarria industrialdean, Burunda frontoian inbertsioak egitea aurreikusten du. Bere aurtengo aurrekontua ia hamar milioi eurokoa da

ALTSASU

Altsasuko Udalak 9.998.467,49 euroko aurrekontua du. Horren barruan daude bere menpeko diren hiru erakundearen aurrekontuak. Alde batetik, Aita Barandiaran egoitzak 1.497.199,64 euroko aurrekontua izanen du. Bestetik, udal kirol azpiegiturak kudeatzen dituen Atabo Altsasu SMk 832.573,98 aurrekontua du. Eta, azkenik, musika eta dantz eskolak 445.138,82 euroko aurrekontua izanen du.

Alkatetza duen Geroa Bairen aldeko botoekin onartu ziren aurrekontuak. Javier Ollo Martinez alkateak nabarmendu zuenez, "urtea onartutako aurrekontuarekin hasteak herria hobetzen segitzeko egin nahi ditugun jarduera guztien planifikazio hobea errazten du". EH Bilduk aurrekontuei ezezkoa eman zien. "Bederatzi emendakin aurkeztu ge-

nituen. Arrazoizkoak eta ekarpen interesgarriak egiten zitzutenak politika aurrerakoiei atek zabaltzeko. Ez dugu hainbeste ezezeko ulertzen. Hamar milioiko aurrekontu batean 135.000 euroko balioa zuten emendakinak ziren. Joan zen urtean abstenitu ginen, aurten ez botatzea beste aukerarik ez diguzue uzten". Koalizioaren onartutako emendakinen artean daude San Pedro taldeko udalaren bi etxebizitzaren zaharberritzeko proiektua idaztea (18.000 euro) eta udan kultur programazioa egitea (15.000 euro). Herrian gauean dauden gune ilunen jurguruko azterketa egingen da.

Egingen direnak

Udalak inbertsioetara 1.044.728,08 euro bideratuko ditu. Zelandi eskolan berritze lanak segida izanen dute udan eta horiek egiteko 93.000 euro (60.000 euro-

ko dirulaguntza) aurreikusi ditu udalak. Aurten gelen eraikineko teilatuaren zati baten txanda izanen da. Gainera, ikastetxera sartzeko Zelai Txiki kaleko atea erabat berrituko du udalak. Gainera, eskolako Haur Hezkuntzako patioako parkea berrituko da 34.000 euroarekin. Bestalde, Ondarria industrialdeko B kaleko espaloi zati bat berrituko da, baita A kale guztia ere. Lanek 140.000 euroko (70.000 euroko laguntza) aurrekontua dute. Gainera, udalak 70.000 euro ditu Dantzalekuko igerileku ertaina konpontzeko. Uda sasoi baina lehen egin nahi ditu lanak.

Baseliza kalea eta San Juan ermita lotzen dituen oinezkoendako pasabidearen zorua berritu, haren egitura berrikusi eta pintatuko du. Horretarako 62.000 euro daude, baina 80.000 eurora arteko aldea diruzaintzako ge-

rakinarekin finantzatzeko da. Horrekin batera, herrigunetik Altsasu BHIra, ikastolara eta Dantzalekuko kirol gunera bizikletendako bidegorri bat eraikitzekeko proiektua idazteko 18.150 euro aurreikusi ditu udalak.

Burunda frontoiko taberna eraberritzeko lanak Reformas Portu enpresari eman dizkio udalak 61.710 euroren truke. Kontratua sinatzen duenetik, enpresak bi hilabete ditu egitekoak despeditzeko. Lan horiek egin ondoren, taberna altzariz jantzi beharko da eta, horretarako, 20.000 euro daude. Gainera, pilotalekuko argiterian aldaketak egingen ditu. Izan ere, frontoiaren barruko fokuak goiko harmailaren atzealdean daude, eta kontraktantxan egon beharko lukete, kantxa hobeto argizatuta egon dadin eta itzalik sor ez dadin. Lan horiek 2.662 euroko aurrekontua dute. Bestalde, Baratzeko bide plazan dagoen haurren jolas parkea estali egingen du udalak, eurria dagoenean ere bertan jolasteko aukera emateko. Lan hori egiteko aurrekontua 70.000 eurokoa da.

Udaletxea

Aurrekontuan gobernuak onartu duen 300.000 euroko dirulaguntza dago udaletxea berritzeko. Baina aurrekontua milioi bat euro baino gehiagokoa izanen da eta diruzaintzako gerakinarekin finantza-

tuko da. Ollok esan duenez, "udaletxeak gaur egun, gabezia garrantzitsuak ditu: espazioen desegokitasuna, isolamendu termiko eta akustiko eskasa, airea berritzeko instalaziorik eza, udal artxiboa teilatupe baxu batean dago eta Udaltzaingoarendako egoitza egokirik ez dago". Hori dela eta, "eraikinaren barrualdea osorik eraberrituko da. Hau da, beheko solairua handitu, udal artxiboa jartzeko eta atxikitako eraikinean udaltzainen bulegoak egokitzeko. Era berean, eraikinaren ingurutzalea hobetuko da, energia eraginkortasun hobetzeko".

Alkateak azaldu duenez, "hilerrian hautemandako premia nagusien arabera, errautsetarako espazio berri bat eraikiko da, eta 48 zinerario ere prestatuko dira, gorpuk gero eta gehiago errausten baitira". Ollok argitu duenez, "espazio berri edo hezurtegia errautsak botatzeko izango litzateke, eta zinerarioa, errautsak dituzten hautestontziak uzteko, eta, hala badagokio, baita hondarrak dituzten poltsak ere". Gaineratu duenez, "hilerriaren ezkerreko eta atzeko pareta berrituko dira ere". Horretarako 37.000 euro daude. Azkenik, alkateak jakinarazi du udalak zortzi langabetu urte erdirako kontratatuko dituela. Horretarako 97.660 euro ditu, baina 45.000 euroko dirulaguntza jasoko du Nafar Lansaretik.

Beste inbertsio batzuk

- **Kirol eskolekin hitzarmenak** 150.628 euro
- **Festak** 145.000 euro
- **Kultur jarduerak** 90.000 euro
- **Larrezabalgo bidea zolatzeko** 72.532,08 euro
- **Obren zerbitzurako kamioia** 37.000 euro
- **Etxegabeen aterpea** 34.000 euro
- **Kirol batzordea** 27.230 euro
- **Haize Berriak banda** 23.839,20 euro
- **Gazteria** 22.704 euro
- **Bideen konponketarako** 20.000 euro
- **Kultur guneko fatxada iragazgaiztea** 20.000 euro
- **Emakumea eta berdintasuna** 19.870,28 euro
- **Lorategi eta berdeguneak** 18.150 euro
- **Ur eta saneamendu sareen digitalizazioa** 17.784 euro
- **Abeltzaintza feria** 16.200 euro
- **Udako kultur programazioa** 15.000 euro
- **Kontsumo bonuak** 15.000 euro
- **Jubilatu elkarte** 14.448 euro
- **Liburutegia** 10.000 euro
- **Hiri altzariak** 10.000 euro
- **Kantari lehiaketa** 9.680 euro
- **Euskara** 5.160 euro
- **Bi buruhandi berri** 5.000 euro



KOLABORAZIOA

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Sakanako lexia konposatuak (X)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Enantzu (ari) izan. Lanean bereziki, edo beste edozertan egokiro aurreratu, probetxu nabaria ateraz adierazten du. Nahiko orokorra dugu aditz perifrasi hau Nafarroako euskal hizkeretan. Sakanan, Ultzaman, Aezkoan, Baztanen eta Iribarrenek Iruñerrian, Lizarraldean eta Agoitzen ere gaztelaniaz 'enanazar' jaso zuen. Ibarrek (1996, *Euskera XLI*) *Erroibarko lexikoaren gainean artikuluan* honela jaso zuen: "Enanzo: fuerza, vigor en el trabajo. Avanzar en una labor o trabajo con rendimiento". Lanerako gaitasuna ere adierazten du, Ultzaman esate baterako. Etxarri Aranazkoa dugu hurrengo esaldia. *Enanzo ai ttun gaur arto forran!* (Asko ari ditun aurreratzen gaur arto jorran!) *Enantzoik ez tut.* (Enantzurik ez dut, Ultzama. Zerbait egiteko trebetasun gutxi). Baztanen honelaxe: "enantzu (enanzu) ahalmen handia, abilezia". *Enanzu aundiko gizona da. Orren enanzue...* (Enantzu handiko gizona da. Horren enantzua...). EHN izen moduan dago jaso: "enantzu iz. Batez ere Naf. Trebetasuna. Berezko enantzua eta ikastea bateratu egin behar dira". Gaztelaniaz esatekotan, "avanzar en los quehaceres,

destreza", esan beharko litzateke.

Enbor/trunku bereko ezpala (ez) izan, Beste enbor/trunku bateko ezpala (ez) izan. Erabilera orokorrekoak dira. Berdina edo antzekoa (ez) izan. Bi pertsona edo gauzen arteko berdintasuna/ezberdintasuna adierazteko erabiltzen dira. 'Trunku' Sakanan erabiltzen da. *Nabai dek, bei, ez tiela oik trunku bereko ezpalak!* (Nabari duk, bai, ez direla horiek enbor bereko ezpalak).

Entrentxiloraino sartu.

Etxarri Aranatzen erabilia. Barne-barneraino sartu. Etxarri Aranatzen erabiltzen zen duela gutxi arte, 'entrentxiloa' zer den oso garbi ez badago ere. Batzuek ezta ezta ezta ezta litzateke edo honen ondoko beste zerbait; eta, beste batzuek, aldiz, gibelaren ondoan legoke aipatu gorpuzki edo organoa. Badirudi 'txilo' osagaiak 'zulo' izenari egiten diola erreferentzia eta, orduan, ezta ezta ezta ezta luke bat. Etxarri Aranatzen sartu. *Deskuidetzen beiz, labana entrentxilluaño sartuko duuk!* (Deskuidatzen bahaiz, labana entrentxiloraino sartuko dik!). *A, ze ezta ezta dakan zuen mutikuorrek! Entrentxilluaño sartu zikiek bee garraxiye!* (A, zer ezta ezta duen zuen mutiko

horrek! Entrentxiloraino sartu zaidak bere karraxia!)

Gaztelaniaz "hasta las entrañas" esan litzateke.

Eran-eran etorri / gertatu / paratu. Aranatzen eta Burundan erabilia. Bata bestearen atzetik, atsedean edo etenik gabe. Ondorengo, OEHN ez zentzu berean, baina bai jarraipenarenean. Etxarri Aranazko esaldia dugu. *Mutikua! Eran-eran etor zizkieguk istripubek eta geixotasunek azkenontan!* (Mutikoa! Eran-eran etorri zaizkiguk istripuak eta gaisotasunak azken honetan!). Kandido Izagirrek (1967, 48 or.) honela jaso zuen Altsasun: "...erán-erán Ama Berjinián aurreti patú ezkerreskubi bi fila o irú eta..." "y poniéndolos ordenadamente ante la Virgen a derecha e izquierda en dos o tres filas...".

Errazalde (egin). Sakana osoan erabilia izan da. Konplikatu gabe, estutu gabe. Bide errazenetik jo. Modu erosoan, errazenean. Lizarragako hiztegi (180) badator eta Ondarrak (8) Bakaikun ere jaso zuen errazalde. Lehen esaldia Etxarri Aranazkoa da eta bigarrena Lizarragakoa: *Ator berriye yos dau. Errexalde ein dau, zarra ez konpontzietis.* (Atorra berria erosi du. Errezalde egin du, zaharra ez konpontzeagatik!) *Errez alde bizi* ("vivir sin complicaciones la vida"). Gaztelaniaz "cómodamente, de la manera más fácil, sin complicaciones" adieraziko litzateke.



Erre keru. Sakanakoa dugu hauxe ere. Janariak, lapikoan itsastan denean, hartzen duen zapore edo gustua. Ondorengo esaldietako lehena Etxarri Aranazkoa da eta bigarrena Erronkaribarkoa, hemen zertxobait desberdin, erre kiño: *Gantanbera, gero ta jende geyoi, erre kerubaaki gustetzen zikiyon.* (Gaztanbera, gero eta jende gehiagori, erre keruarekin gustatzen zaion.) *Ezne kau errekiñatruk da.* (Esne hau erre kinoturik dago.). Gaztelaniaz "requemado".

Erribera izan / eduki, Erribera txarrik ez eduki, Itxuran bizi. Lehena, Aranatzen jasoa dut eta beste biak Sakanan barna. Mauka, pagotxa, aukera aparta. Ikustekorik izango du erribera hitzaren esanahi geografikoarekin, ibaiaren ondoan, leku egokia baita. Ongi bizi, arazorik gabe. Normalean zer moduz bizi garen galdetzen digutenean ematen da erantzun moduan horietako hirugarrena. *A ze erribera zikok zuen mutikuorrek!* (A, zer erribera zeukak zuen mutiko horrek!) *Krisiye ta krisi ondokue, ez tikobe oik erribera txarrik!* (Krisia eta krisi ondokoa, ez zaukatek horiek erribera txarrik!). *Itxuren bizi geittuk azken ontan bintzet!* (Itxuran bizi gaituk azken honetan behintzat!). Lizarragan: "Erribera ona ioon, erribera txarra ez ioon, tener buenos negocios, estar en buena situación económica". Gaztelaniaz "chollo, posibilidad de andar a sus anchas, situación privilegiada".

Es Kerrago izan (+ahal), Nahiago izan (+ahal).

Sakanan erabilia ditugu hauek biak. Oxala. Desiratzen dugun zerbait gertatuko dela esaten digutenean, gure gogoan adierazteko erabiltzen dira esamolde hauek. *Es Kerrago/ neyo nauke ola izetie!* (Es Kerrago/ nahiago nuke -oxala- horrela izatea!) *Es Kerrago/ neyo nikek!* *Es Kerrago/ neyo lauke!* (Es Kerrago/ nahiago nuke/ n! Es Kerrago/ nahiago luke!) *Es Kerrago likek/ n! Es Kerrago liken, loteiye tokatuko balakigu!* (Es Kerrago likek/ n! Oxala, loteria tokatuko balitzagu!). Gaztelaniaz "¿Qué más quisiera!, ¡Ya podía!, ¡Ya me gustaría!".

Esnetan bizi, Esne-mamitan bizi. Aranatzen eta Arakilen erabilia izan dira. Oso eroso edo handizki bizi. Etxarri Aranazkoa dugu hurrengo esaldia. *Gaur eguneko gaztiek esnetan bizi izendu ttun! Auskalo ze gertatuko dakiyobien emendi aurria!* (Gaur eguneko gazteak esne(-mami)tan bizi izan ditun! Auskalo zer gertatuko zaien hemendik aurrera!). Gaztelaniaz "vivir de maravilla, en la abundancia".

Esportan ura bezela izan. Etxarri Aranatzen behintzat erabilia izan da. Nafarrerako hitza dugu 'esporta', saskia adierazteko baliatzen den mailegua. Ardura gutxiko edo hitzik gabeko pertsonengatik esaten da. Esportak bezala, zirrikitu asko bere baitan dituen pertsona adierazten da modu metaforikoan. *Guaño arrittu eitten yeiz? Ze espia dek, ba, orrengati? Esportan utse bezela dek!* (Oraino harritu egiten haiz? Zer espera duk, bada, horrengatik? Esportan ura bezela duk!). Gaztelaniaz "no es persona de palabra" erabiliko litzateke.

DUELA 25 URTE...



Bakaikuko kofradiaren liburua

San Anton kofradiaren XVIII. eta XIX. mendeko akta liburua kofrade batzuk apaizaren etxean opatu zuten bi urte lehenago. Kofradeek elizan gorde zuten liburua, baina kokaleku zehatz bat erabakitzean ziren. Ziurrik, sakristian eta egurrezko eta kristalezko kutxa baten barruan gordeko zuten. Horrek bakaikuar guztiei liburua ikusteko aukera emanen lieke. Kofradeek ez baitzuten nahi inolaz ere liburua herritik ateratzea.

Foruzain berriak Altsasuko polizia etxerako

Nafarroako Segurtasun eta Larraldi Eskolako Poliziari buruzko Oinarrizko Ikastaroa abenduaren 23an despeditu zen. Guztira, ikastaroa 95 agentek gainditu zuten, eta horietatik 93 Foruzaingoan sartu ziren (62 gizon eta 31 emakume) beste biak udaltzaingoetan. Ikastaroa despeditu ondoren, foruzain berriak beraien lantokietan lanean hasi ziren ilbeltzaren 2an, tartean Altsasun. Bertan 34 agente daude, eta Pablo Bailo da burua. Komisaria horrek Sakanaz aparte, Larraun, Lekunberri, Araitz eta Leitzalde hartzen ditu.

Barne kontseilari Amparo Lopez Antelo Altsasun izan zen ostiralean. "Gobernuak konpromisoa hartu du segurtasun politika publikoak indartzeko", eta oso garrantzitsua dela polizia zerbitzuaren eskaintza aurrera egitea, "nafarregandik, haien eskarrietatik eta egungo gizartearen erronketatik gertu". Borondatea da "Foruzaingoaren garapena indartzeko".

Larrazak ardura berria hartuko du NUPen

Nafarroako Unibertsitate Publikoan beste errektoreorde kargu bat hartuko du. Otsailaren 3an Unibertsitatean egingen den ekitaldi instituzional batean jabetuko da karguaz

SAKANA

Nafarroako Unibertsitate Publiko (NUP) errektore Ramon Gonzalo Garciak lau errektoreordetzaren buruak berri ditu. Unibertsitateko zuzendaritza taldean jarraituko du Martin Larraza Kintanak. NUPeko Kalitateko, Ekonomiako eta Estrategiako errektoreordea izan da 2019az geroztik. Eta otsailaren 3tik aurrera Ikerketako errektoreordea izanen da, Francisco Javier Arregi San Martini lekukoa hartuta. Errektorea Gizarte Kontseiluarekin ados jarrita, kudeatzaile berri bat izendatu du: Mar Gonzalez Paredes. Unibertsitatean bertan otsailaren



Martin Larraza Kintana. NUP

3an egingen den erakunde ekitaldi batean jabetuko dira nor bere karguaz.

Larrazak

Enpresen Antolaketako katedraduna da Larraza NUPen eta INARBEko ikertzailea. Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziaduna eta Enpresa Zientzietan diplomaduna da, biak NUPen, eta Ekonomian doktorea Madrilgo Carlos III Unibertsitatean. Eskolak eman ditu Enpresen Antolaketaren arloan graduko, masterreko eta doktoretzako zenbait titulaziotan.

Haren ikerketak aztergai du pertsonen erabakiak hartzerakoan duten jokabidea eta, batik batik, jardura profesionala enpresen barrenean garatzen duten pertsonena. Oinarri horrekin, 20 urtetik gorako ikerlanari esker, ekarpenak egin dizkio arlo horretako nazioarteko zientzia eztabaidari, hau da, giza baliabideen kudeaketaren, zuzendaritza estrategikoaren, familia enpresaren eta ekintzaitzaren gaineko eztabaidari. Lan horren emaitza hainbat arlotan islatuta gelditu da.

**residuos de navarra
nafarroako hondakinak**

Etorkizun zirkularra eraikitzen dugu

Izan giltzarri!




Rafa Txuri Irakasle ohia eta Guaixeko kolaboratzailea

Kaixo,

Rafa Txuri naiz, irakasle izandakoa eta Guaixeko kolaboratzailea.

Bada, Izan Giltzarri! Eta zu ere izan zaitetz Guaixeko bazkide. Egin Sakana eta egin komunitatea.



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)

FESTAK

LAKUNTZAKO SANSAASTINAK

URTARRILAK 17

FESTAURREA

17:30 Irantzu Gonzalez dantza eskolaren dantza modernoa erakustaldia, kultur etxean.
18:30 Piperropil txapelketa, udaletxean.
23:00 Biltotek tekno gaua: Larreta, losu Garate, Morti, Eduardo Diaz, Jesse eta Bigalondo disko jartzaileak, Biltokin. Biltokik antolatuta.

URTARRILAK 18

12:30 Txupinazioa eta danborrada txikia. Ondoren, Zarata txarangarekin musika animazioa, udaletxean.
19:30 Buruhandiak, herritik zehar.
20:00 Auzatea, kultur etxean.
20:00-22:00 Muxutruk erromeria taldea, kultur etxean.
20:30 Zezensuzkoa, plazan.
00:00-02:00 Muxutruk erromeria taldea, kultur etxean.

URTARRILAK 19

12:00 Haize Txikiak Bandaren

DORRAO

URTARRILAK 18

SAN ANTON EGUNA

09:00 Meza, elizan. Ondoren, Responsua, nagusien etxean.
10:00 Gosaria.
15:00 San Anton kofradiako bazkaria.

BAKAIKU

URTARRILAK 18

SAN ANTON EGUNA

12:30 Meza.
14:30 San Anton kofradiako bazkaria.

URDIAIN

URTARRILAK 18

SAN ANTON EGUNA

12:00 Meza, eliza. Ondoren,

kontzertua, kultur etxean.

13:00 Auzatea, kultur etxean.

13:30 Lakuntzako erraldoi eta buruhandien konpartsa, herritik zehar.

16:30-19:30 Puzgarriak, Behar Zana pilotalekuan.

19:30 Txokolate jana, Behar Zana pilotalekua.

20:00 Auzatea, kultur etxean.

20:00-22:00 Oilar beltzak musika taldea, kultur etxean.

20:30 Zezensuzkoa, plazan.

24:00 Danborrada, Markoxena plazan.

URTARRILAK 20

07:00 Aurora Lakuntzako Abesbatzarekin.

11:00 Erromeria: oinez San Saastin ermitara Iñaki Bizkairekin.

12:30 Auzatea Lakuntzako Pertza Elkartek eskainita, San Saastin ermitan.

18:30 Elai Alai dantza taldearen emanaldia, Behar Zana pilotalekuan.

19:00 Alkate dantza, Behar Zana pilotalekuan.

19:30 Buruhandiak, herritik zehar.

20:00 Zezensuzkoa, plazan.

Tintinurri elkartearen hamaiaketakoa eta batzarra.

14:30 San Anton kofradiako anaien bazkaria, elkartearen. Bazkalostean, sartzen diren bi maiordomoen etxera.

ITURMENDI

URTARRILAK 19

SAN ANTON EGUNA

10:30 Meza.

OLATZAGUTIA

URTARRILAK 20

SAN SEBASTIAN EGUNA

12:00 Meza, San Sebastian ermitan.

13:00 Otordua, San Sebastian auzoko bizilagunek eskainita.

"Tarte polita pasatzen duzu jendearekin"

JUANI LAZKANO AZPIROZ PIPERROPIL EGILEA ETA LEHIAKETAN EPAILE IZANDAKOA
Lakuntzako festetan hutsik egiten ez duen ekitaldia da piperropil lehiaketak, udaletxean gaur jokatu dena. Lehiaketak parte hartzaileak eta epaileak behar ditu

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA

Gaurtik festa nagusi izanen da Lakuntzan. Lagun eta senideekin egoteko garaia da festa, ongi pasatzekoa. Lakuntzan baita piperropilak partekatzeke unea ere. Hala azaldu digu Juani Lazkano Azpiroz.

Lehiaketako epailea, nolaz?

Udaletik jendea hots egiten dute epaile izateko, urtero jende desberdina izaten da. Joan den urtean niri hots egin zidaten, baiezkoa eman eta han egon nintzen.

Zer behar da lehiaketako epaile izateko?

Gustua. Piperropilak gustatzea eta bakoitza pixka bat bereiztea. Normalean, saskietan aurkezten dituzte. Zinegotziak egoten dira. Beraiek hartzen dituzte piperropilak, zenbaki bat jartzen diete. Epaileek ez dute ikusten zeinek eramaten dituen. Zenbakiak dituztela, epaileek probatzen dituzte. Gehiago edo gutxiago gustatu zaigun esaten da, eta puntuazioa ematen da.

Epaile bakarra egoten da?

Ez. Mahaian lauzpabost pertsona egoten dira.

Zer hartzen da kontuan piperropil bat baloratzerakoan?

Goxoena izatea. Baina ez gozoa delako. Baloratzen dira testura eta gustua. Anis edo azukre gehiegi duen edo ez. Harro dagoen edo gogor. Halakoak baloratzen dira.

Anisarekin edo azukrearekin pasa gabe. Baina gutxi ere, kalte!

Bai, noski! Hor neurri bat egon behar du ez gehiegi, ez gutxiegi.

Testura. Gogorra edo biguna?

Gogorra ez, ez. Biguna. Baina ezta oso biguna ere. Batzuek labean egiten dituzte eta, hala eginda, gogorra ateratzen da. Oso garrantzitsua da piperropila beheko suan egitea. Han egin da piperropilak oso harro, ongi gelditzen dira.

Begiekin ere jaten dugu. Kolorea ere baloratzen da?

Bai. Baita itxura ere. Batzuk oso zakarrak egoten dira, beste batzuk



Juani Lazkano Azpiroz sutondoan. UTZITAKOIA

oso politak. Baina oso politak edo oso zakarrak egoteak, gero, gustuarekin behar bada ez dute bat egiten. Beharbada oso zakarra da eta zapoz besteak baino askoz hobea da.

Zer tamainakoak izan behar dute?

Ez, neurririk ez dago. Tamainan denak nahikoa antzekoak dira. Batzuek, beharbada, handixekoak, txikixekoak besteak, baina, normalean, denak nahikoa antzekoak dira.

Joan zen urtekoa, aurreneko aldia zen epaile aritu zinela?

Ez, beste batean egon nintzen, duela urte batzuk. Joan den urtekoa bigarren aldia zen.

Zer moduzko esperientzia da epaile izatea?

Polita. Herriko festetako giroa dago, eta polita da. Oso gustura egoten gara. Denon artean probatzen ditugu, jendea begira dugu. Gainera, lehiaketara aurkeztutako piperropilekin puskak egiten dira eta joaten den jende guztiak jaten du. Denbora tarte polita pasatzen duzu herriko jendearekin.

Jakina, jendeak piperropil irabazlea probatu nahiko du!

Noski! (barrez). Baina beste gainerakoak ere goxoak dira.

Baten batek epaile izan nahi balu, zergatik animatu beharko luke?

Hasteko, herriko ohitura bat delako. Oso gauza polita da. Tradizio hori, nik uste, mantendu egin behar dela.

Lehiaketara asko aurkezten dira?

Dezente, hamabi edo hamabosten bat, bai.

Etxera afalduta joan zineten epaileak?

(Barrez) Ez, ez. Hori probatzeko besterik ez da. Ondoren afaltzera joaten gara.

Jan bai, baina egin egiten dituzu?

Bai, gaur eginen ditut. Baina ez dut ohiturarik lehiaketara aurkezteko. Etxean jateko eta lagunei emateko egiten ditut. Horretarako egitea gustatzen zait, jendearekin partekatzeke.

Ona egiteko sekretua?

Uiii. Bakoitzak berea izanen du. Badago bat, beti irabazten duena. Egia da oso-oso goxoak egiten dituela. Niretako goxoak. Sekretua ez dakit zein izanen den, **Piperropila, urte guztian?**

Neguko da, bakarrrik San Saastin festetarako egiten da.

Lehiaketan aurkezteko asmoa duenarendako aholkuren bat?

Ufff. Beheko suan egiteko. Goxoenak hor ateratzen dira.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 17

ETXARRI ARANATZ Ipuin kontaketa eta marrazkiak.

Ipuin kontalaria eta marrazkiak margotzeko aukera izanen da. *Arratsaldean, liburutegian.*

ALTSASU Gazte agenda.

Tramankuluren *Gozamenez escape room*-a. Aurretik izena eman behar da, sei eta zortzi partaideko taldeak. *17:30etik 18:30era; 19:00etatik 20:00etara; 20:30etik 21:30era, Intxostiapunta gazte gunean.*

EUSKARAZ

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Almazanean Iker Galartzaren eta Zuhaitz Gurrutxagaren antzeulanaren emanaldia: Erretreta hartzeko dagoen arduraduna eta bere lanpostuan ordezkatuko duenak ezinbestean bost egunez lantokia partekatuko dute, itxuraz deus gertatzen ez den almazen huts batean. Bi langileen harremana estutzen joango da, eta amankomunean daukaten horrek lotuko ditu betirako: galtzaileen kontzientzia. Lan munduan pairatzen den esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnarketa egiten du. Sarrerak: 6 eurotan. *19:00etan, kultur etxean.*

OLATZAGUTIA Zineforuma.

Maddi Barber zinemagilearen *592 metros* filmaren emanaldia eta zineforuma: Zer bizi aukera geratzen dira lurralde bat erabat aldatzen denean? Nafarroako Pirinioetako hegaletan, 1990eko hamarkadan Itoizko urtegiaren eraikuntzak zazpi herri eta hiru erreserba natural urez bete zituen. Lur zerrenda biluzi bat 592 kotaren parean. Gaztelaniaz. Landa Adimena proiektuaren barruan, Cederna Garalurrek antolatuta. Izena ematea:664 388 696 telefonoaren Whatsappean. *19:00etan, kultur etxean.*

LARUNBATA 18

IRURTZUN Mus txapelketa.

Euskal Herriko Mus Txapelketa – Felix Urria Mariñelarena Memorialaren lehenengo kanporaketa. *16:30ean, Larrazpin.*

ALTSASU Gazte agenda.

Tramankuluren *Gozamenez escape room*-a. Aurretik izena eman behar da, sei eta zortzi partaideko taldeak. *17:30etik 18:30era; 19:00etatik 20:00etara; 20:30etik 21:30era, Intxostiapunta gazte gunean.*

IGANDEA 19

ALTSASU Manifestazioa.

Sunsundegui ez itxi! Enplegua bermatuko duen proiektu industrialak behar du Altsasuk, Sunsundeguioko langile batzordeak deitutako manifestazioa. *12:00etan, BM supermerkatutik.*

EUSKARAZ

ALTSASU Antzerkia.

104. haurra antzeulanaren emanaldia, Yarleku konpainiarena, Eva Azpilikueta eta Laura Villanueva antzeleekin eta Jokin Oregik zuzendutakoa: Umezurztegi batean adoptatua izateko irrikan dagoen neskato bat da protagonista. Egoera berean dauden beste neska batzuek bezala, jantziak egiten eta josten ematen ditu egunak. Sarrerak: 4 euro. *12:00etan, lortia kultur gunean.*

EUSKARAZ

OLATZAGUTIA Antzerkia.

Kutxartean Teatro Paraiso Antzerkia konpainiaren antzeulanaren

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Sing sing

Igandea 19 19:30

Babygirl

Ostegyba 23 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Sing sing

Igandea 19 17:00

Oh Canada

Igandea 19 19:00

Living Kultur, Filmoteka Nafarroan programaren barruan, *Marga Gutierrez egilearen solasaldiarekin* Astelehena 20 19:30*La luz que imprimes* Osteguna 23 19:00emanaldia: Umerez beteriko istorio honetan kutxa batzuetan bizi diren bi lagunek leku ameslarietarako bidaia irratzen dituzte, beraien sormen harrigarria dela eta. 2024ko Xixongo Fetan jaialdiko Clown ikuskizun onenaren saria irabazi zuen. Sarrerak: aurretik, 3 euro; egunean bertan, 3,5 euro. *17:00etan, kultur etxean.*

ASTELEHENA 20

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. *12:00etan, udaletxearen parean.*

ASTEARTEA 21

LAKUNTZA Kontzertua.

San Saastin Musika Eskolaren kontzertua. *17:30ean, kultur etxean.*

ASTEAZKENA 22

ETXARRI ARANATZ Jokoa.

Altxorraren bila jokoa. *Arratsaldean, liburutegian.*

IRURTZUN Bilera.

Arakilgo garraio zaintza zerbitzuaren proiektuaren azalpena eta boluntarioen bilera. *19:00etan, Arakilgo udaletxean.*

OSTEGUNA 23

IRURTZUN Neguko zinema.

Matrix filmaren emanaldia, Larrazpin antolatutako neguko zinema programaren barruan. *20:00etan, Larrazpin.*

OSTIRALA 24

ALTSASU Gazte agenda.


Buztinezko eskulanak. *18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.*

IRURTZUN Hitzaldi solidarioa.


Paris 365 jantoki solidarioaren inguruko hitzaldia, Iratxo elkarteak antolatuta. *19:00ean, Iratxo elkartearen.*

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 17




Larunbata, 18



Igandea, 19



Astelehena, 20




Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

ESKELA



Jesus Mari Alonso Zabaleta
(Nere)
—Goian bego—

Enparantzako lagunak
Altsasun, 2025eko urtarrilaren 8an

ESKELA



Jesus Mari Alonso Zabaleta

Lurrak goxo har zaitzala

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue

Etxekoak

ESKELA




Ritxi


"Jaitsi iezadazu izar bat"

Maite, Josune, Josean, Puri eta Peio

ESKELA



Rikardo Lopez de Goikoetxea Galartza
(2025eko ilbeltzaren 12an hil zen)



Aitzkozer Elkarteko kide guztien agurra
Iturmendi

ESKELA



Ritxi

"Txoriak bezain libre hegan egin ezazu"

Mendi tontorrean elkar ikusiko dugu

Zure ilobak

ESKELA

Ritxi

"Gero arte adiskide, goian zaude iada"

Aurrio trepalari taldea



ESKELA

Ritxi

Lortutako gailurra altuena izanda ere ez zenituen kontuan hartzen jasandako arriskuak, barre artean kontatutako pasadizoak bakarrik

Zure lagunak



JAIOTZAK

- **Asier Aguirre Etxenike**, abenduaren 15ean Olaztin.
- **Clara Dosantos Passeiro**, abenduaren 7an Olaztin.
- **Yousef El Attar**, abenduaren 22an Bakaikun.

HERIOTZAK

- **Jaime Perez Lopez**, abenduaren 25ean Olaztin.
- **Juan Jose Rodriguez Cruz**, abenduaren 27an Altsasun.
- **Luis Santano Hernandez**, urtarrilaren 9an Altsasun.
- **Jesus Mari Alonso Zabaleta**, urtarrilaren 8an Altsasun.
- **Damian Zabala Marin**, abenduaren 5ean Etxarri Aranatzen.
- **Juliana Maiza Erdocia**, abenduaren 24an Etxarri Aranatzen.
- **Francisco Caravaca Segura**, urtarrilaren 9an Lakuntzan.
- **Maria Josefa Lanz Hernandez**, abenduaren 27an Iturmendi.
- **Maria Asuncion Irisarri Amondarain**, ilbeltzaren 2an Iturmendi.
- **Ricardo Lopez de Goikoetxea Galartza**, ilbeltzaren 12an Iturmendi.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EMAKUME PREFERENTEA

12. JARDUNALDIKO EMAITZA

Berriozar - Altsasu 1-4

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1 Altsasu 29

2 Gazte Berriak 23

HURRENGOA

ILBELTZAK 19, IGANDEA

13:00 Altsasu - Castejon (Dantzaleku)

Altsasuk indartsu hasi du urtea

Berriozar irabazi eta gero, Altsasu liderrak zortzigarren den Castejon hartuko du etzi .

GIZON ERREGIONALA

15. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Baztan B - Altsasu 1-5

Etxarri Aranatz - Arga Ibaia 4-1

Berriozar - Lagun Artea 5-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Altsasu 43

3 Etxarri Aranatz 37

8 Lagun Artea 23

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAK 17, OSTIRALA

19:00 Lagun Artea - Asdefor (Zelai Berr)

ILBELTZAK 18, LARUNBATA

16:30 Aurrera - Altsasu (Ardiskil, Leitzza)

18:15 Kirol Sport - Etxarri (Orkoien)

Altsasu liderra, bide beretik

Altsasuk Baztango garaipena Leitzan errepikatzea du buruan. Aurrerak ez dio lana erraztuko, baina galdu gabe segi nahi dute altsasuarrek, lider sendo.

Etxarri Aranatz, Kirol Sporten etxera

Etxarrik garaipenaren xendan jarraitzen du. Kirol Sport arerio zailaren kontra bide beretik jarraitzea espero dute etxarriarrek.

Lagun Artea, buelta ematera

Azkeneko jardunaldiak lakuntzarrendako ez dira errazak izan. Asdeforren kontra irabazi nahi dute, sansastinetan gogoz ospatzeko.

ARETO FUTBOLA Kopa gol festarekin hasi du Aralar Mendik

Hirugarren mailan Aralar Mendik kopari ezin hobe ekin dio, Universidad de Navarrari 2-10 irabaziz. Larunbatean, 18:00etan, Kirol Sport hartuko du. Lehen maila autonomikoan Arbizu Kirol Taldeak lider segitzen du (Tafari 1-3 irabazi) eta Altsasu bigarren postura igo da (Canterari 0-5 irabazi), eta bihar Subiza izango du aurkari. Emakumezkoen lehen senior mailan Xotak 2-1 galdu zuen Azkarrenarekin eta igandean, 12:45ean, Ribaforada hartuko du Atakondoen.

Zabaleta eta Elordi gora hurbiltzen ari dira

PILOTA Elordi-Zabaleta sailkapenean hirugarren dira, Ezkurdia-Rezusta puntu batera eta Laso-Iztueta liderrak bi puntura dituztela. Ezkurdia-Rezustari irabazita lehen garaipena lortu duten Etxeberria-Martija izango dituzte aurkari, Mungian

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkak ekuatorea gainditu du. Bederatzi jardunaldi jokatu eta estu dago txapelketa, bai goiko postuetan, eta behekoetan baita ere.

Laso eta txapelketa honetako sorpresa den Iztueta dira sailkapeneko liderrak (8 puntu). Ezkurdiak eta Rezustak estropezu egin zuten Etxeberriaren eta Martijaren kontra eta bigarren dira (7 puntu). Nolanahi ere bikote sendoa dira, txapelketako beste sorpresetako bat, eta orain arteko mailari eusten badiote, oso kontuan hartzekoak. Puntu batera Elordi eta Zabaleta daude, hirugarren (6 puntu). 2023ko txapeldunak ez daude orduan bezain distiratsu, baina gora doaz eta txapelketa hau irabazteko faboritoen artean daudela erakusten ari dira.

Peio Etxeberriak eta Martijak ilusioa piztu zuten, baina bederatzigarren jardunaldira arte ez



Zabaleta-Elordik 6 puntu dituzte. ETB

dira irabazteko gai izan. Garaipen edo puntu bakarra dute, Ezkurdiaren eta Rezustaren kontra lortutakoa, eta sailkapenean azkenak dira. Ligaxka despeditzeko bost jardunaldiren faltan, play-offetara sailkatzeko

aukera gutxi dute, baina lehen garaipenak eman dien haizea probestu nahi dute garaipenaren xendan jarraitzeko.

Arakildarrak, arerio

Binakako hamargarren jardunaldia indartsu dator. Larunbatean jokatu dute pilotari sakandarrek. Mungiak atzelari arakildarren arteko lehia hartuko du, Elordik eta Zabaletak Peio Etxeberriaren eta Martijaren kontra jokatu baitute, Martija osatzen bada behintzat. Sukarrak jota egon da Etxeberrikoa, ez zen material aukeraketara joan, baina azken orduko albisterik ez badago, printzipioz Mungian egotekoa da. Ea bi atzelariak lehia ederra eskaintzen duten. Egun berean Ezkurdia-Rezustak Altuna-Arangurenen kontra jokatu dute Labriten. Bi bikoteak galtzetik datoz, gipuzkoarrak gaixo egotetik, eta jokoan dagoen puntua ezinbestekoa da biendako.



PILOTAJAUKU

Pilotajaukun, guztiak txapeldun

PILOTA Altsasuko Pilotajauku klubak Gabonetako Pilota Txapelketa antolatu zuen abenduaren 26tik 29ra. Aurrebenjamin mailatik kadete mailara bitartean, guztira 60 pilotaririk gora parte hartu zuten txapelketan, giro ederrean. Gizonezkoen partidez gain,

emakumezkoen pala eta pilota partidak izan ziren baita ere aurtengo txapelketan. Abenduaren 29an final handien txanda izan zen eta Joseba Ezkurdia pilotaria bertaratu zen sari ematera, Pilotajaukuko pilotari guztien gozamenarako.

LABURREAN

Irati Igoa, sentsazio onak Osasuna talde nagusian



Irati Igoa Sesma erdilari etxarriarraren dohainak ez dira oharkabean pasa. Igandean Osasuna talde nagusiarekin debutatu zuen, Oscar Dominguezen esanetara. "Urteko lehen partidari Osasunarekin etxean debutatzea eta garaipena lortzea ederra izan da, gertuko jendea etorri delako ni ikustera. Sentsazioak onak dira".

Ailetz Lasa, profesionala Tavira taldearekin



Ailetz Lasa Lizarragak 2025ean UCI maila kontinentaleko Portugalgo Tavira taldearekin salto egin du profesional mailara, 24 urte dituela. Ziordiarrek 2019an Laboral Kutxarekin debutatu zuen afizionatuetan eta iaz Telco-ON Clima Osas taldean aritu zen. Hiru garaipen ditu: 2024an Seguran, 2023an Urdulizen eta 2021ean Leintz Gatagan.

Irurtzun, Nafarroako txapeldunak



Hamabost urte beranduago Irurtzun Pilota Kluba Nafarroako Binakako Pilota Txapelketako gorenera itzuli da, bi final garrantzitsuenak irabazita. Nafarroako Binakako lehen mailako txapeldunak Josu Igoa eta Aaron Arbizu etxarriarrek dira eta bigarren mailakoak Irurtzun klubeko Salcedo eta Lazkoz, lan itzela eginda.



Maialen Larraza, finala irabazita, Purroy besarkatzen. UTZITAKOA

"Zeuden bikoteak ikusita, ez nuen iazko txapela berritzea espero"

MAIALEN LARRAZA SENAR GURE PILOTAKO PALISTA

PALA Lehen mailako Sakanako txapela jantzi du berriz

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Maialen Larraza dugu 20. Sakanako Nesken Pala Txapelketako lehen mailako txapelduna, Irati Purroyrekin. Joan zen urteko garaipena berritzea lortu du palista etxarriarrak.

Joan zen urtean Sakanako lehen mailako finala irabazi zenuen, eta aurten baita ere. Bi txapela, bata bestearen jarraian.

Aurten Sakanako Pala Txapelketa jokatzeko gogo nituen, baina iaz baino beldur gehiago nuen, bikote gehiago eta palista berri askok parte hartu zutelako, maila handia zutena. Finalerdietara sailkatzerakoan ongi sentitu nintzen, eta finalerdia irabazitakoan osopozik sentitu nintzen; horrekin konformatzen nintzen, berdin zitzaidan finala irabaztea edo galtzea.

Irati Purroy izan duzu bikote.

Iruindarra da, eta Nafarroako selekzioan batera egoten garela ezagutzen nuen. Asko poztu nintzen berarekin jokatu nuela esan zidatenean, Iratiarekin harreman ona dudalako. Elkarrekin jokatu dugun lehen aldian da, eta oso ongi moldatu gara, aurretik harremana genuenez, oso ongi. Gauzak ongi ateratzeko komunikazioa behar da, eta aurretik harremana baduzu, askoz hobe. Lasai jokatu dut Iratiarekin. Banekien partida zailak genituela aurretik, eta edozeinek irabaz zezakeela. Disfrutatzen atera nintzen.

Finalean Inunziaga eta Garziarena-ri 16-25 irabazi zenieten.

Ongi hasi ginen, indartsu, eta hasieratik alde atera genuen. 7, 8,9 eta 10 tantoko alde ateratzen genien, baina momentu batean 4 tantora hurbildu zitzaizkigun, 20-16 jarri ziren. Baina berriro topera hasi eta zuzenean joan ginen 25eraino.

Txapela irabaztea espero al zenuen? Egia esan, ez. Panorama ikusi nuenean, bikoteen maila oso handia zela iruditu zitzaidan. Horregatik, nire helburua finalerdietara iristea zen. Baina behin txapela lortuta, sekulako poza sumatu nuen. Oso harro sentitu nintzen, eta oso pozik.

Finalean sekulako giroa zegoen.

Ez nuen horrenbeste jende egotea espero, bezperan kategoria txikiko finalak jokatu zirelako eta frontoia topera zegoelako. Baina lehen mailako eta elite mailako finaletan ere goraino bete zen.

Sakanako Txapelketaren 20. urterena zenez, parte hartze handiagoa izan da aurten, 128 bikote. Txapelketa bereziagoa izan al da?

Baietz esango nuke. Bikote gehiago geunden, eta bikote guztiak, baita kategoria txikikoak ere, maila handikoak eta oso parekatuak. Beraz, txapelketa polita, ikusgarria eta estua izan da. Bestalde, Maite Ruiz de Larra mendipalista handiari omenaldia egin genion; palistek arkua egin genion, eta nik eta beste hiruk aureskua dantzatu genion. Politia izan zen. Hartzabalen bazkaltzera bildu eta bikain pasa genuen.

"Txapela poz handia izanda, eta lasaitasuna"

NAHIA GOIKOETXEA AGIRRE GURE PILOTAKO PALISTA

PALA 20. Sakanako Nesken Pala Txapelketako pottoken edo juniorren mailako txapelduna izan da Nahia Goikoetxea etxarriarra, Ariadne Olzarekin

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ

Abenduaren 28an 20. Sakanako Nesken Pala Txapelketako finalak jokatu ziren Etxarri Aranzten. Gure Pilotako palistak gailendu ziren kategoria txikietan. Pottoken mailan, jubeniletan, Nahia Goikoetxea etxarriarra eta Ariadne Olza txapeldunak izan ziren.

Aurretik Sakanako Txapelketako beste txapelaren bat al zenuen?

Zortzi urte nituenetik ari naiz palan. Aurretik Sakanako beste txapela bat nuen, honekin, bi.

Sakanako Pala Txapelketak izen handia du, palista onenak lehiatzen direlako.

Bai, txapelketa handia da, ezaguna. Nire bikotea Ariadne Olza iruindarra izan da. Lehenengo aldiz aritu naiz berarekin, oso gustura. Ongi moldatu gara. Makina hutsa da, aurrelari oso ona.

Finalera iristea eta txapela irabaztea espero al zenuen?

Ez. Nafarroako Binakako Txapelketan Oskia Zubiria eta biok finalerdietara ez ginela sailkatu ikusita, ez nuen Sakanako finalean egotea espero. Nahiko urduri, baina lortu genuen. Nolanahi ere, finalerdietan finalean baino urduriago nengo.

Finalean 10-25 menderatu zenituzten Arai Guerra eta Eva Astrain, alde handiz.



Nahia Goikoetxea, gorritz, eta Ariadne Olza sariak jasotzen. UTZITAKOA

"ARIADNE OLZA ETA BOK OSO ONGI MOLDATU GARA; MAKINA HUTSA DA, AURRELARI ONA"

Bai, irabazten hasi ginen, eta hasieran alde nahikoa hartuta, aurrera segitzea izan zen asmoa, 25. tantoraino.

Txapela jantzita zer sentitu zenuen?

Egindako lanarengatik poz handia, gure lana erakutsi genuela-

ko, eta lasaitasuna. Nolabaiteko harrotasuna, aldi berean.

Zer ematen dizu palak?

Oso kirol polita da. Jendearekin jokatzeko duzu eta lagun berriak egiten dituzu. Niri lasaitzen eta deskonektatzen laguntzen dit.

Hemendik aurrera, zeintzuk dira helburuak?

Nafarroako Banakako Txapelketan hasi berri naiz. Lehenengo aldian da banaka jokatzeko dudala, ea zer moduz doakidan.

Non jarri duzu txapela?

Logelan. Ohetik ikusten dut, esnatzerakoan eta lokartzerakoan.



Sakanako Nesken Pala Txapelketako finalistak



Sakanako Xake Txapelketako zenbait partidek arretoa handia piztu zuten.

Gure xakelariak oso fin XXIV. Sakanako Xake Txapelketan

XAKEA Koldo Flores hirugarren izan zen, Iraitz Mauleon eta Juan Andres Cerrorrek puntutara berdinduta

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Abenduaren 21ean jokatu zen XXIV. Sakanako Xake Txapelketa, Etxarri Aranazko Larrañeta elkartearen. Hemeretzi xakelarik hartu zuten parte Sakanako Mankomunitateak eta Sakanako Zaldi Beltza Xake Taldeak antolatutako txapelketan. Nafarroako Xake Federazioak egun berean Nafarroako Kirol Jokoen txapelketa antolatu zuen Iruñean, eta horrek Sakanako probaren parte hartzean eragina izan zuen, txikien kategorian, Zaldi Beltza-koen penarako.

Azken edizioetan bezala, Aitor Huarte Zozaia epaileak gidatu zuen txapelketa, aldi berean Nafarroako 1900 ELO puntutik beherako txapelketa izan zena. Eroso zegoen guztia bideratzen eta, tarteka, isiltasuna eskatzen. Txapelketa azkarra izan zen, 15 minutuko zortzi jardunaldi edo partidatan erabaki zena, giro onean. Eguerdian tartea zabaldu zuten, Larrañetakoek prestatutako bazkariak gozatzeko.

Hemeretzi partaideen artean hamaika sakandarrak ziren, eta emakume bakarra, Maria Rodri-

guez. Joseba Otano iruindarra gailendu zen (6 puntu), Juan Jose Navas bigarrenarekin puntutara berdinduta. Hirugarren postua Lizarragabengoako Koldo Floresendako izan zen (5 puntu), Iraitz Mauleon etxarriarrarekin eta Juan Andres Cerro altsasuarrekin puntutara berdinduta. Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Mikel Castellano seigarren sailkatu zen (4,5 puntu), Victor Barriga zazpigarren (4,5 puntu), Cesar Razkin zortzigarren (4,5 puntu), Ismael Anton hamaiagarren (4 puntu), Aimar Azanza hamabigarren (4 puntu), Jon Lizarraga hamalagarren (3 puntu), Kevin Sanchez hamabosgarren (3 puntu), eta Eki Errazkin hemezortzigarren (puntu 1).

Emakumezkoen saria Maria Rodriguezendako izan zen, sailkapenean hamaseigarren (2,5 puntu). 14 urtetik beherako gazte mailako saria Aimar Azanzak eta Eki Errazkinek jaso zuten. Koldo Flores lehen sakandarrak hirugarren saria lortu zuenez, antolakuntzak Iraitz Mauleoni eta Juan Andres Cerrori sakandarren saria eman zien.



Altsasuko Krosak irudi paregabeak utzi zituen. Argazkian, Hiru-Herriko Mikel Astiz eta Ivan Sobredo sakandarrak.

Altsasuko Krosa, ezin hobe

ATLETISMOA Abdelkader Al Ghamek eta Alicia Carrerak irabazi zuten giro paregabearen jokotutako 39. Altsasuko Krosa-Izelai Hotela Sari Nagusia. Dantzaleku Sakanak "guztia primeran" atera zela nabarmendu du. Beunza eta Fernandez, Espainiako Txapelketara

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Fresko, baina kroserako egun elegantea izan zen igandekoa. Hotz, baina eguzkitsua. Eta lohia. Kros bat, lokatarik gabe, ez baita krosa.

39. Altsasuko Krosa-Izelai Hotela Sari Nagusirako, aldi berean Nafarroako Kros Luzea zena, bi zirkuitu eder prestatu zituen Dantzaleku Sakanak Usolarrainen. Korrikalariak Dantzaleku atletismo pistetan hartzen zuten irteera, 200 m osatuta zirkuituan sartu eta kategoria bakoitzak bere distantziak egiteko. Kategoria txikikoendako 450 metroko zirkuitu polita prestatu zen, eta helduen proba nagusirako zirkuitu txikiari lotuta 1.700 metroko zirkuitua, Usolarrainen. "Dantzalekuk Altsasuko Udalaren babesarekin krosa edo traila lantzeko prestatu duen zirkuitu iraunkorreko eremu zabal bat

hartu da helduen zirkuiturako, oso maldatsua diren tarte batzuk kenduta" azaldu zuen Peio Bergara Dantzalekuko beteranoak. Korrikalariak ibilbide berria "oso polita, aurreko zirkuitua baino ikusgarriagoa, baina oso gogorra" zela nabarmendu zuten.

Al Gham eta Acebedo

39. Altsasuko Krosako proba nagusia elkarrekin egin zuten 20 urtez azpikoek (6.050m) eta eliteek eta 23 urtez azpikoek (9.450 m). Hasieratik bizi-bizi abiatu zen proba, eta Beste Iruñako Aldelkader Al Gham eta Andoni Ace-

bedo aurrean jarri ziren. Bezperan eta gauean euria egin zuenez, korrikalariak lohia izan zuten bidaide. Maldak, oztupoak... denetatik zegoen. Aldelkader Ghamek ez zuen areririk izan eta erraz irabazi zuen Altsasuko Krosa (32:22), bere taldekide Andoni Acebedoren (32:35) eta Iranzu taldeko Marcos Yanizen (34:07) aurretik. Jatorriz marokoarra den korrikalariak oraindik ez du espainiartasun nazionalitatearik lortu, eta ezin izan zuen Nafarroako txapeldunaren titulu jaso. "Seigarren aldiz gertatzen zaidan aldia da honakoa" apatu zuen, sari ematean. Beraz, Acebedo izan zen Nafarroako txapelduna, joan zen urtean Lizarran lortutako garaipena berrituz. "Hasieratik erritmo bizia hartu dut Kaderrri segika. Bera jarraitu dut, atzekoekin distantzia hartzeko, eta gero nire errit-

"GAIZKI OHITUTA GAUDE. HAU DA BENETAKO KROS BAT; GOGORRA IZAN DA" IZASKUN BEUNZA



moan jarraitu dut proba, bigarren sailkatu arte. Atharratze Rota gaixotu eta etorri ez izanak ere txapelketa lortzen lagundu dit" adierazi zuen Nafarroako txapel-dunak helmugan.

Sakandarrak oso ongi

Lehen sakandarra Hiru-Herriko Israel Arbizu izan zen, sailkape-nean hamargarrena (35:38). "Kontentu nago egindakoarekin. Zegoen maila ikusita, hamargarren postua pozik egotekoa da" zihoen etxarriarrak. Gainontzeko sakandarrak ere oso fin ibili ziren. Hiru-Herriko Ivan Sobredo "Triki" hamalagarren iritsi zen (36:05), eta Mikel Astiz ihabardarra hamaseigarren (36:56).

Alicia Carrerak areririk ez

Emakumezkoetan Alicia Carrerak agindu zuen (39:43) eta proba irabazteaz gain Nafarroako txapelduna izan zen, Violeta Alonsoren (40:52) eta Ainara Alcuazen (41:04) aurretik. Nafarroako Kros Luzeko txapelduna izateaz gain, Iruñean jokatuako Nafarroako Kros Laburra ere irabazi zuenez, dobletea lortu zuen. "Altsasukoa oso lasterketa gogorra izan da. Zirkuitu berria nolakoa zen kontatu zidatenean, igoera eta jai-tsierekin, gustuko izango nuela pentsatu nuen, baina ez nuen lohia kontuan hartu. Eta lokatz asko zegoen. Malda pasata erre-kuperatu nahi zenuenean, lokatza zenuen zain". Beraz, garaipenak meritu gehiago du oraindik.

Izaskun Beunza, Espainiakora

Lehen sakandarra Izaskun Beunza izan zen, bosgarren emakumezkoa (41:22). Postu horri esker ilbeltzaren 26an Getafen jokatu den Espainiako Txapelketan egoteko txartela lortu du olaztiarrak. Hori zen bere helburua. "Duela aste bat zirkuitua ezagutzera etorri nintzen, eta trailera-ko zirkuitu polit bat iruditu zitzaidan. Aldapak eta lokatza, indarrarekin ibili beharreko ibilbidea da. Bost buelta gogor dira, eta motelago atera behar nintzela argi nuen, gehiegi ez sufritzeko. Espainiako Txapelketara joan ahal izateko postuetan sartu naiz, eta oso pozik nago". Gune lau batzuk faltan bota zituela aitortu zuen, irribarrez. "Dena den, gaizki ohituta gaude. Beste tokietako probei krosa esaten zaie, baina ez da benetakoa. Altsasukoa, hau bai dela benetako krosa" zioen olaztiarrak.

Txikienen gozamen

Hasieran kategoriatxiki probak jokatu ziren: 14 urtez azpikoak hasi ziren lehenengo, eta atzetik 12 urtez azpikoak, 10 urtez azpikoak, 16 urtez azpikoak eta 18 urtez azpikoak jokatu ziren. Ikusle asko hurbildu zen neska-mutilak animatzera, eta giroa aparta zen Dantzalekun. Gainera, Altsasu Kirol Elkarteak eta Dantzaleku Klubak Dantzalekuko taberna zabaldu zuten, eta zer jan eta zer edan bazegoen.

Nafarroako klubaren artean Fermin Azkargortak, Aitor Mendozak eta Jare Maizak gidatzen dituzten Dantzaleku Sakana eskolako neska-mutilak zeuden. Lan ederra egin zuten guztiek, eta bi podium lortu zituzten. Sihets Agirre Arruti 14 urtez azpiko txapelketa irabazi zuen, eta Manex Izagirre Ormazabal hirugarren sailkatu zen 10 urtez azpikoan. 18 urtez azpikoan Victor Fernandez laugarren sailkatu zen, podiumetik oso gertu, lasterketa itzela eginda. Nafarroako Federazioak Dantzalekuko jokalaria Getafeko Espainiako Kros Txapelketarako 18 urtez azpiko talderako hautatu du.

Belaunaldi aldaketa Dantzalekun

Iñigo Agirre zen Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko presidentea orain arte, baina Adrian Claverrek hartu dio lekukoa. "Gazteek lekukoa hartu behar dute, beraiek dira klubetik tira egin behar dutenak" zihoen Agirrek, antolakuntzan laguntzen zuen bitartean. Adrian Claverrek hartu du sortu den junta berria gidatzeko ardura, eta Agirre ordezkatu du. Dantzalekuko Altsasuko Kroseko martxaren balorazio ezin hobea egin zuten: "guztia ongi atera da. Eguraldia kroserako primerakoa zen, eta ez du euririk egin. Agian lohi gehiegi zegoen, baina kros batendako, ongi. Eta jendea ere kontentu dago" azaldu zuten.



Kategoria txikiak goiztiarrenak izan ziren eta ilusio biziz aritu ziren.



Izaskun Beunza erdian, aurrean Ana Llorens duela, enborren gainetik pasa ondoren.



Israel Arbizu irribarretsu iritsi zen helmugara, egindako lanarekin pozik.



39. Altsasu Kroseko txapeldunak, podiumean.

Dantzaleku eskolakoak, oso pozik



Azkargorta eta Mendoza.

Entrenatzaileak, gustura


Dantzaleku Sakana atletismo eskolako koordinatzaile Fermin Azkargortak eta Aitor Mendozak eta Jare Maiza monitoreek trebatzen dituzte eskolako 60 kideak. "Proba bikaina egin dute".



Sihets Agirre Arruti.

Sihets Agirre, garaile

Nafarroako 14 urtez azpiko txapelduna da arbizuarra. "Ez nuen irabaztea espero. Nahiko azkar atera naiz, eta topera joan naiz bukaeraraino. Gogorra egin zait, besteak ere onak zirelako. Oso pozik nago".



Victor Fernandez, helmugan.

Victor Fernandez, itzela

Dantzaleku Sakanako korrikalaria 18 urtez azpiko mailan laugarren sailkatu zen, proba ikusgarria eginda. Nafarroako Federazioak Espainiako Kros Txapelketan parte hartzeko hautatu du.



CBASK-eko hamaika taldeak elkarrekin. Bigarren autonomikoen eta beteranoen arteko partidak itxi zuen aurkezpena.

#GoCBASK, #GoraCBASK!

SASKIBALOIA 2024/2025 denboraldian hamaika talde, 134 saskibaloj jokalaria eta 22 entrenatzaile ditu Altsasuko CBASK Saskibaloj klubak. Klubaren 25. urteurrenean, denboraldiari gogotsu ekin diote, aldaketekin

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Klub bakoitzak badu bere taldeak animatzeko lelo bereizgarria. Altsasuko CBASK Saskibaloj Klubak bere Sare Sozialetako publikazioetan #GoCBASK, #GoraCBASK dira erabiltzen dituzten hasthtag edo etiketak. Eta sentimendu hori agerikoa zen ilbeltzaren 4an klubak egindako 2024/2025eko taldeen aurkezpen ekitaldian: aurrera, gora CBASK!

Aurten klubak hamaika talde ditu guztira, 134 jokalaria eta 22 entrenatzaile. Joan zen urtean baino hamar jokalaria gutxiago dira. "Kategoria txikietan nabaritu dugu batez ere. Boladak izaten dira, baina mantentzen gara eta hori da garrantzitsuena, klubak aurrera egitea. Hamaika talde gara, joan zen urtean baino talde bat gehiago, eta oso pozik gaude" azaldu du Iosu Mendiola Marañon CBASK-eko

saskibaloj koordinatzaileak. Bigarren denboraldia du koordinatzaile, Enrique Vilasi lekukoa hartu zionetik, eta ilusioz jarraitzen du arbizuarrak.

Helburuak

Klubaren helburu nagusiak betikoak dira. "Kirol helburuak, berez, ez daude. Bestelako helburuak dira: Sakanan saskibaloia sustatzea, neska-mutikoen saskibaloiarekin ongi pasa eta gozatu dezatela, eta eurekin kirol balioak landu eta sustatzea. Bestetik, joan zen denboraldian hartutako norabidean jarraitu

**"ALTSASUTIK
KANPOKO JENDEA ERE
CBASK-ERA BATU DA.
OSO POZIK GAUDE"**

IOSU MENDIOLA

nahi dugu, eta kluba Sakanako beste herrietara hedatu. CBASK-eko jokalaria gehienak altsasuarrrak dira, baina azken bi urteetan beste herrietako jendea batzen ari da. Ikastetxeetan Nafarroako Saskibaloj Federazioaren laguntzarekin saskibaloia sustatu dugu, klubaren berri eman dugu, eta uste dut horrek eragina izan duela. Asko pozten nau" aitortu du.

Talde nagusien aldaketak

Talde nagusiei begiratuta, iazko gizonen bigarren maila interautonomikotik aurtengo bigarren maila autonomikora pasa da CBASK Narum Fisioterapia. "Joan zen denboraldian interautonomikoan jokatzeko gure Errioxako zenbait taldeekin, baina Errioxakoak bereiztu direnez, ez dugu kategoria galdu. Maila horretako nafar taldeak

Nafarroako bigarren maila autonomikora pasa gara".

Nobedade handiak daude taldean. Hasteko, entrenatzaile berria, Iñigo Zabalo jokalaria ohia. "Iñigo taldera itzuli behar zen jokalaria gisa, baina Unai Mundiñano entrenatzaileak taldea utzi, eta egoera kritiko horretan Iñigo Zabalok hartu zuen bere tokia". Bestalde, baja garrantzitsua izan du taldeak, Unax Ijurrarena, Valladolidera joan baita ikastera. Iazko puntuatzaile onenetakoa zen, eta taldean bere falta nabaritzen da. "Junior mailatik talde nagusira jendea igo behar izan dugu. Zorionez, taldea ateratzea lortu dugu eta talde gaztea da duguna, alde batetik irregularra, baina bestetik ikasteko grina eta ilusioa duena. Txukun hasi dute denboraldia, eta kategoriari eusten badio, ongi".

Emakumezkoen lehen senior mailako taldean ere antzeko egoera izan dute. Entrenatzaile berriak daude: Aimar Azpiroz eta Iker Claver bigarren autonomikoko jokalaria direnak, eta Eneko Casteig. "Lana eta koordinazio lana zela eta, ez nuen nesken taldea entrenatzeko denborarik. Zorionez, mutilen taldeko bi jokalaria inplikatu ziren eta aurretik entrenatzaile izandako Eneko Casteig entrenatzaile izan zen. Txukun hasi da CBASK Xabi Gorritz Tattoos, eta gustura dabilta. Ea bigarren fasera ongi heltzen diren".

Entrenatzaileak trebatzen

CBASK-eko talde guztiak koordinatzea ez da lan makala. Jokalarien fitxak egin, partiden ordutegiak lotu eta irteerak antolatu, entrenamenduen eta taldeen jarraipena egin, gurasoekin harremana, bitartekaritza... Entrenatzaileak aurkitzea kostatu zaie gehien Mendiolari eta juntari. "Aurreko denboraldian entrenatzaile gazteak genituen, baina ikasketen adin kritiko horretan utzi zuten. DBH mailako jokalaria animatu dira, eta eurak gidatzen eta laguntzen ari gara. Klubak aurrera egin du, eta hori da garrantzitsuena".

**"ENTRENATZAILEAK
AURKITZEA KOSTATU
ZAIGU. GAZTETXOAK
ANIMATU DIRA"**

IOSU MENDIOLA



**"CBASK-en
guztiak dituzte
bere minutuak"**

XABIER RAMIREZ DE ALDA PRESIDENTEA

**Altsasuko CBASK
Saskibaloj Klubak 25
urte. Ospakizun berezirik
gingo duzue?**

Momentuz ez dugu erabaki, aztertuko dugu. Pozik gaude kluba osasuntsu dagoelako. Entrenatzaileak ezin lotu, gaizki ibili ginen, baina gaztetxoak inplikatu dira, eta haiek laguntzen eta motibatzen gabilta.

**CBASK-en guztiak
jokatzeko dute.**

Jokalaria guztiak dituzte euren minutuak. Gazteek saskibaloian ongi pasatzea da nahia, baina horrek ez du kentzen talde polita ateraz gero, ahalik eta hobekien aritza. Talde nagusien helburua Lauko Finalera sailkatzea izan behar du, beti. Presidente naizenetik bi Lauko Final jokatu ditugu. Zergatik ez hirugarrena?

Babesleak aldetik, ongi?

Narum Fisioterapia, Xabi Gorritz Tattoos eta Aldakin dira hiru talde nagusien babesleak, eta Lacunza Kalor Group eskolena. Udalak eta bestelako komertzioek laguntzen dute; oso eskertuta gaude.

**Fermin Herrerok Kirol
Merituaren Zilarrezko
Domina jaso zuen. Hori
ere CBASK-i egindako
aitortza da.**

Klubetik bera proposatu genuen, eta Nafarroako Gobernuak aintzat hartu zuenean, izugarri poztu ginen. Harro gaude.



Patxi Bisquert zinemagilea 'Ombuaren Itzala' filmaren aurkezpenan Hiriberri Arakilen. ARAKIL KULTURA

'Ombuaren Itzala' errealitate bat da

Patxi Bisquertek sortutako eta auzolanean ekoiztutako Pello Mari Otano bertsolariaren inguruko filma aurkeztu zuten ilbeltzaren 10ean, Hiriberri Arakilen. Hamahiru urteko bidearen ondoren mustu du zinemagileak lana

HIRIBERRI ARAKIL

Pello Mari Otaño bertsolariaren bitzta kontatzea zen Patxi Bisquert zinemagilearen helburua. *Ombuaren Itzala* zen proiektuaren izenburua, eta ametsa betetzeko auzolan "erraldoia" egin zuen. Duela hamarkada baino gehiagoko lana izan da, eta 2021ean auzolanaren bidezko ekoizpena bultzatu zuen zinemagileak. 2024. urtearen amaieran mustu zuen filma Euskal Herriko hainbat txokotan eta Argentinan grabatu ondoren. Azaroan lana Zizurkilen, Otañoren herrian, aurkeztu ondoren, herriz herri zabaltzen hasi dira. Ilbeltzaren 10ean Hiriberri Arakilgo herri etxean aurkeztu zuen Bis-

quertek filma, arrakasta handiarekin. Joseba Salegi zinemagile altsasuarra da pelikularen zuzendari laguntzailea.

Ombuaren Itzala Pello Mari Otañoren *biopic* bat da. Bertsolariaren bizitzaren atalak kontatzen ditu, bere obraren bidez. Pertsonaia erdian dago eta bertsoek garrantzia dute; bertsolariaren garapen pertsonala eta politikoa ikusten da. Otaño Zizurkilen jaio zen 1857in eta Argentinan 1910ean hil zen. Bisquerti egindako elkarrizketa batean esan zuen garai horietako inguruko pelikula asko ez daudela Euskal Herrian, eta oso urte garrantzitsuak izan zirela ideia berriak sortzen hasi zire-

lako. Sekuentzia batean ideia berri horiek garrantzia aipatzen dute filmean.

Auzolana

Filma ekoizteko bidea ez da erraza izan. Bisquertek aitortu zuenez, hamar urtetan ate asko jo izan ditu proiektua martxan jartzeko. Proiektuan sinistuta auzolan erraldoia jarri zuen martxan, eta proiektua zabaltzeko hainbat herritan izan zen. Besteak beste, mezenazgoaren bidez aurretik sarrerak erosteko aukera izan zen, eta horrekin ekoizle bihurtzen ziren herritarrak, eta orain pixkanaka filma zabaltu zuen herrietara iristen ari da.

Zama azken doinuak etxerantz jaialdirako atzera kontua

Hilaren 24an eta 26an izanen da kontzertuaren edizio "bereziarena"; ostiralerako sarrerak salgai daude

Eneida C. M. eta E. R. B. ETXARRI A.

"Urduritasun pixka bat" hasi dela esan du Mikel Mundiñano, Zama doinu arindu jaialdiko antolakuntzako kideak. "Azkenekoa izateaz gain eta horrek ekartzen duena, berritasun askorekin dator: dena da desberdina". *Azken doinuak etxerantz* lelopean elkartasun kontzertuaren azken edizioa izanen da ilbeltzaren 26koa. "Buru belarri ari gara bi aste hauetan eta lan talde osoa topera, azken izateak ematen duen emozio puntu horrekin".

Kultur etxetik Etxarri Aranazko eskolako frontoira leku aldatu dute azken Zama. "Toki txiki batetik toki handi batera. Beste gauza batzuetan irabaziko du, baina montaje erabat desberdina da". Astelehenerako ezer gertatu ez balitz bezala gelditu behar dela gaineratu du Mundiñanok. "Ezberdina den heinean motibagarria da, eta urduritasuna pil-pilean dago".

Azken edizioaren beste berritasun bat da bi egunetan ospatuko dela: ilbeltzaren 24an, ostirala, eta 26an, igandea. "Nolabait as-teburua aprobetxatu nahi genuen Zamari despedida egiteko eta ostiralean gaztetxera goaz". Unidad Alavesa, Skabidean eta Malandro DJ izanen dira berta, eta sarrerak Etxarri Aranazko Udalaren webgunean eta Xapatero eta Leku Ona tabernetan eros daitezke. "Kontzertu izugarri ona izanen da, puntako taldeak dira".

Igandeko kontzerturako kartela aurkeztu eta gutxira agortu ziren sarrerak, baina Guaixe

Kideek bi sarrera irabazteko aukera dute *guaixe.eus* webgunean egiten ari den zozketan. Mundiñanok azaldu duenez, urtero *Zama doinu arindu* jaialdira joan den jendea sarrerarik gabe geratu da, "guk ez dugu kulparik; bizien ibili zirenak hartu zituzten sarrera guztiak, eta horrekin pena pixka batekin gaude". Gizartean dagoen "zera hori" dela aipatu du, "beste maila batean sarrera gutxiago daudelako, baina kontzertu erraldoi horien inguruan badago nolabaiteko antsietatea sarrerak lortzeko". Gorka Urbizu, ZETAK, El Drogas, Olaia Inziarte, Porrotx, Brigade Loco, Eñaut Eloorrieta, Zea Mays, Nögen, Bulego eta Juantxo Arakama musikariek osatzen dute 26ko kartela. Kontzertua grabatu eta *Ahotsa.info* eta Hamaika Tebistaren bidez ikusteko aukera izanen da aurterago.

Zama doinu arindu jaialdiaren oinarria auzolana izan da, eta aurten "are garrantzitsuagoa" da: "Beste dimentsio bat denez jende gehiago eskatzen du leku batean eta bestean. Horrek eskatzen du antolaketa txukun bat eta nik uste dut hori egin dugula".

Preso eta iheslariaren "zamarekin" laguntzeko sortutako elkartasun jaialdia da Zama. Sortu zenetik gaur egun arte preso eta iheslariaren egoeraren "bilakaera positiboa" izan dela esan du Mundiñanok, "motelegia". Helburua zama "behin betiko" kentzea da: "Norabide horretan ongi goaz".

Olaztin grabatutako filma publikoaren eta epaileen onena

Ana Barberan zinemagilearen 'Amándala' film laburrak Nafarroa Zinema Lurraldearen bi sari irabazi zituen

OLATZAGUTIA

2024ko Nafarroa Zinema Lurraldea jaialdiko sari banaketa Ribafordako kultur etxean izan zen, abenduan, eta bertan Olatzagutian grabatutako Ana Barberan zinemagilearen *Amándala* film labu-

rrak epaimahaiaren sari berezia eta publikoaren saria jaso zituen, bakoitzak 500 eurokoa. Jaialdiko irabazle nagusia Argedasen grabatutako *Arado* izan zen. Aurreko edizioan ere Olatzagutian grabatutako lanak saria jaso zuen.

Jaialdiko epaimahaia Carlos Gurpegui, kazetaria eta Espainiako Zinema Akademiako kideak; Carlos Guerrero, ekoizlea, Midnight Fear Factory estudioetako zuzendaria eta Errealizadore Berrien Plataformako kideak; Vitor Palacios, zuzendaria, ekoizlea eta Espainiako Film Laburren Koordinadorearen zuzendaritza kideak; Lamberto Guerra aktorea, zuzendaria, gidoilaria eta ekoizleak, eta Izaskun Rodriguez kazetaria eta EHUko irakasleak osatzen zuten.



Ana Barberan, eskuinetik hirugarrena, saria jasotzen. NAFARROA ZINEMA LURRALDEA

Akelarrea Nafarroa Arenan

MITOAROA ikuskizuna egin zuen Peio Reparazen ZETAK proiektuak ilbeltzaren 3an eta 4an, Nafarroa Arenan. Besteak beste, Nafarroako inauterietako pertsonaiak bildu zituen, tartean Unanuko mamuxarroak, Arbizuko txatarrak eta Altsasuko momotxorroak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

"Ez da kontzertu bat. MITOAROA da". Horrela deskribatzen zuen ZETAKek ilbeltzaren 3an eta 4an Nafarroa Arenan musika proiektuaren bosgarren urteurrena ospatzeko emanen zuen ikuskizuna. Hala izan zen; ez zen kontzertu bat izan, eta Euskal He-

rriko talde batek egin duen ikus-entzunezko lanik hobere-netariko delata esan dute ere. ZETAKen ibilbidearen abestiek ongi lotutako istorio bat kontatu zuten, non Nafarroako inauterietako pertsonaia mitologikoak agertzen ziren, ikusleak MITOAROAren unibertsoan barneratuz.

Sorpresak izan ziren ere, esaterako, Vendettako kideak oholtzaren agertu ziren, Maixux Zugarramurdik eta Ansa ahizpek *Hileta kantu nafarra* abestia egin zuten, Marala taldea, Erramun Martikorenak, besteak beste, *Xalbadorren heriotzean* abestu zuten eta, larunbatean, Jagoba Arrasate Osasunako entrenatzailea izandakoak bertsoak bota zituen. MITOAROA askorendako ahaztezina izango da.

Mitoak

MITOAROAren oinarrietako bat Nafarroako inauterietako pertsonaiak izan ziren: Tuterako zipoteroak; Ituren, Zubieta eta Aurizko joaldunak; Lantzeko txatxoak eta arotzak eta, nola ez, Arbizuko txatarrak, Altsasuko momotxorrak eta Aaztiyen diskoaren iruditegiaren parte izan diren Unanuko mamuxarroak. Kontakizuna sei ataletan banatuta zegoen: *Sarrera: Itzaletako deia; Lehenengo kapitulua: igarolekua; Bigarren kapitulua: Erbesteko biztanleak; Hirugarren kapitulua: Epifania; Laugarren kapitulua: Konkordatua, eta Bosgarren kapitulua: Bi munduren batura.*

Inauterietako pertsonaiak ezustean ateratzen ziren, ZETAKen abestiekin bat egiten. Sakanako pertsonaien kasuan, lehenengoak mamuxarroak izan ziren, interlude batean eszenatokiaren goiko aldean atera ziren. Ondoren, *Pater Noster* abestian agertu ziren, Pello Reparaz inguratuz, eta beste pertsonaia guztiekin batera *Akelarretan* abestian atera ziren unanuarrek, eta *Aralarko Dama* abestian momenturik "politena" bizi izan zuela esan du Javier Mozo unanuarrek. Ikuskizunaren egun bakoitzean hamalau mamuxarro egon ziren;

haietako seik bi egunean errepikatu zuten.

Arbizuko txatarrak *Entre car i os* abestiaren aurretik atera ziren, makilarekin lurraren kontra joz. Hemeretzi txatarrek parte hartu zuten, tartean Maia Novoselsky eta Aitzol Gartzarain. Gartzarainek gidatzen zuen taldea: "Linierak nituen eta bertatik esaten zidaten makila prestatzeko eta lurrean jotzeko". *Akelarretan* abestian ere eszenatokiaren goiko aldean atera ziren, eta *Aralarko Dama* abestian publikoaren artean atera ziren, Lantzeko txatxoak eta arotzak eta Tuterako zipoteroekin batera.

Su abestiarekin agertu ziren eszenatokian hogeita hiru momotxorroak. Kukai dantza taldeko dantzariak irekitzen zuten segizioa. *Momotxorroen dantza*-ren doinuarekin entseatu genuen, eta beste abestiarekin aldatzen da. Pixka bat urduri jarri ginen, ez genekielako nola egin. Gero ikusi genuen posiblea zela, esan du Ainhoa Etxaiz Altsasuko inauterietako batzordeko kideak. Kukaiko dantzariak momotxorroen dantza erakutsi zieten, "gatzetxean hamar bat elkartu ginen entseatzeko eta bideoa grabatzeko", azaldu du Asier Jorge batzordeko kideak. *Akelarretan* abestian agertu ziren ere momotxorroak, eta *Aralarko Dama*-n graduan agertu ziren. "Unanuko kontzertuan *Deskontrol* abestian atera ginen, eta harritu gintuen eszenatokian geldirik geundelako. Momotxorroaren papera zein den azaldu genien, zein den gure izaera, eta aldatu zuten", azaldu du Jorgek. Unanun publikotik agertu ziren ere, "eta Nafarroa Arenan nahi genuen,


gero ulertu genuen zergatik ezin zen", gaineratu du Etxaizek.

Bizitzan behin

ZETAK bezalako talde batek mamuxarroak irudi bezala hartzea "gauza polita, oso handia" dela esan du Mozok. Unanuarrek bizitza osoan zehar ezagutu dituzte mamuxarroak, "oso interesagarria eta polita da"; herriko gauza bat. ZETAKen Nafarroako Arenako ikuskizunean parte hartzeko deia "herriko mutil gazte" baten bidez iritsi zitzaie la azaldu du Mozok, "bere bitartez antolatu zen guztia". Aurretik Unanuko herriari mamuxarroen iruditegia erabiltzeagatik esker-erak emateko ZETAKek kontzertua antolatu zuen Unanun, eta MITOAROAren ere mamuxarroak egongo zirela bazekiten: "Baina ez genekien zenbat, nola, ez ezer. Zerbait egongo zela bai, baina gehiagorik ez". Unanuarrek ez zuten espero "hainbestekorik" izango zenik, "jendearen oihartzuna ikusten duzu eta oso handia izan da". Berak oraindik ez du kontzertu osoa ikusteko tartarik izan, "ikusiko dut", baina momentuz bideoak ikusi ditu.

Mozok "esperientzia berri bat bizitzeko" parte hartu zuen. "Inauteria beti barruan izan dugu, eta kuadrillakoekin eta herriko jende gaztearekin bizitzeko esperientzia bat zen. Herri harreman gehiago egin dira". Belaunaldien topaketa izan da ere ikuskizuna. "Esperientzia ona eta polita izan da; bizitzan behin bizitzekoa". Momentu bat aukeratzekotan *Aralarko Dama* abestiarekin gelditzen da unanuarra: "Mundu guztia zuri begira eta bengala piztu genuenean publikoaren erreakzioa izugarria izan zen, gehienbat lehenengo egunean; erreakzioa oso polita izan zen". Hasieran pixka bat urduri jarri zela aitortu du Mozok, "baina azkenean tapatuta gaudenez, abantaila handia da".

"Lanetik ailegatu berri nintzen eta Pellok hotsein zidan: zuek zineten txatar konfliktiboak? Herrian zarata pixka bat sortu genuen bere garaian. Pentsatu nuen: zer nahiko du mutiko honek...". Gartzarainek ZETAKeko taldearekin bilera egin zuen eta proiektua komentatu zituen. "Momentu horretan power point bat zen; jendea behar zutela eta herriko jendeari komentatzeko esan zidaten". Novoselskyk MITOAROAren sarrerak bazituen,



BAZTERRETIK

EKAIN ALEGRE GIL

Autotunearena

Aurreko astean irakurri nuen Berria zenbait musika adituk 2024 urteari buruz eginiko laburpena eta beste hainbat gauzaren artean, honako esaldia zegoen nabarmendua: "autotunea egiten ari den kaltea nabarmena da". Esaldiak esaldi, adierazgarria iruditzen zait baieztapen horren atzean gordetzen den guztia.

Hasteko, bitxia egiten zait "autotune" hitza erabiltzea kaltearen eragileztat, modu honetan autotunea erabiltzen duen abesti oro barnebilduz, jakinda autotunea ez dela genero bat, ahotsak zuzentzeko erreminta bat baizik.

Lehen geruza honen azpian, beste baieztapen hau aurki daiteke: autotunearen aroan ekoizten diren produktuek kalte egiten diote musikari. Bigarren kasu honetarako ere, okerra da autotune hitza, musikaren norabide aldaketa musika industriak ekarri baitu, gero eta gehiago eta azkarrago kontsumitzearen behararekin batera. Esaterako, rock talde klasikoek haien abesti zaharrak birgrabatzeko eta disko

arrakastatsuenen zuzeneko girak egiteko joera hartu dute azkenaldian: akaso ez da kaltegarriagoa musikarentzat zenbaiten erosotasuna, gehiago saltzeko helburuarekin?

Hala ere, badakit esaldia ez dela pertsona bakar baten ikuspuntua, baizik eta belaunaldi nagusien artean oso hedatua dagoen pentsaera. Belaunaldi gazteenek entzuten duten musikara hurbiltzeko ahalegina nekezegia suertatzean, "autotunea" erabili ohi da aterki gisa, ustez hain urrun geratzen zaien musika hori etiketatu eta moralki musika hori entzuten dutenak baino koxka bat gorago sentitzeko.

Edonola ere, ni musikaz aritu naiz (horrela egin ohi dudalako), baina uste dut sarri erabiltzen dugula horrelako modus operandia zerbaiti zilegitasuna kentzeko. Autotunea ez bada, beste terminoren bat erabil dezakegu aitzakiatzat eta ondoren datorrena entzuteari utzi, inoizko abestirik ederrena izanik ere.



"ESPERIENTZIA ONA ETA POLITA IZAN DA; BIZITZAN BEHIN BIZITZKOA" JAVIER MOZO, MAMUXARROA



ZETAken MITOAROA Nafarroa Arenan. MARIO LEZAUN

parte hartzeko aukera iritsi zitzaionean: "Unanuko kontzertuan batzuk txatarrez ibili ziren, eta denak mutikoak ziren, orduan Nafarroa Arenarako neskek behar zirela esan zuten. Sarrera erositak neukanez ikusle bezala joan edo parte hartu pentsatu behar izan nuen". Azkenean, txatarrez parte hartu zuen. Arbizuarrendako esperientzia "oso polita" izan zen. Novoselsky: "Horrelako zerbait hain berezia izan dena, hain potentea, eta pentsatzea gu horren parte izan garela, oso berezia da". Esperientzia barrutik bizitzeko aukera izan dute, "kontzertu bat edo, beno, MITOAROA, barrutik nola egiten den ikusteko aukera".

"Nik ez nuen espero. Banekien ez zela kontzertu bat, baina ez nuen espero hain gauza handia izatea". Azken egunetan edozein tokitan elkarrizketa gaia Nafarroa Arenan bizitutakoa izaten jarraitzen duela gaineratu du Novoselsky: "Harritu nau izan duen erreperkusioa, ez nuen espero". Bertan parte hartu izateagatik "harro" sentitzen da.

Unetxoak

Unetxo bat aukeratzekotan Gartzarainek kamerinoan sortutako unetxo "oso polit bat" aipatu du: Erramun Martikorenari *Xalbadorren heriotzean* abestu ziotenekoa. Argazki bat eskatzera joan ziren, eta arbizuarrak kantatzen hasi ziren: "Kamerak agertu ziren eta bazirudien pres-

tatu zegoela, baina oso neutrala izan zen". Novoselskyk momentu hori oso polita izan zela aipatu du, baita zaila dela momentu bakar bat aukeratzeko: "Azken kanta ere, publikoaren artean atara ginen eta jendea gauza politak eta zoriontzen gintuen; oso momentu polita ere". Gartzarainek eszenatokiko unea ere gogora ekarri du, "lurra lehertuko genuela zirudien". Gartzarainek aitortu duenez, "urduri" zegoen, "erritmoa eraman behar nuen eta presioa nuen". Novoselsky ere urduri zegoen, "aurpegia tapatuta nuen baina... urduritasuna bazegoen". Entsegua Nafarroa Arena hutsik ikusi zutenean "ez zirudien hain handia", baina jendearekin asko aldatzen zela esan du.



"ZAILA DA MOMENTU BAT AUKERATZEA: KAMERINOAK, 'ARALARKO DAMA'..."
AITZOL ETA MAIA,
TXATARRAK

ZETAkek MITOAROaren berri eman aurretik sortu zen Altsasuko inauteri batzordeko kideekin harremana. Etxaizek azaldu duenez, Nafarroa Arenan promozio bideoa egiteko deitu zieten lehenengo aldiz. Jorgek gaineratu duenez, "pixkanaka gehiago elkartu ginen. Bideorako hiru momotxorro egon ginen, eta Unanuko kontzerturako ere deitu gintuzten eta jende gehiago batzen joan zen". Unanutik Nafarroa Arenara joan ziren momotxorroak. Lehenengo topaketa horiek "ideia orokor bat" egiteko balio izan zela esan du Etxaizek, "baina ez genekien zer izan behar zen aurreko egunera arte", gaineratu du Jorgek. Biak batzordean hasiberriak dira, Etxaiz aurten sartu da eta Jorge aurreko urtean, "momotxorroak toki gehiagoetatik mugitu dira, baina gu biok ez".

Esperientzia "berezia" izan dela esan du Etxaizek: "Ezberdinak izan dira, nahiz eta kontzertu berdina izan, ostirala eta larunbata egun oso desberdinak izan dira". Larunbatean "lasaiago" egongo zirela uste zutela esan du Jorgek, "baina ETBn zuzenean emititu zutenek, ezin ginen pistara atara, eta aldageletan geunden herri guztietako inauteriak, pasilloan elkartzen ginela, eta ez genekiela kanpoan zer gertatzen ari zen". Larunbatean zuzenean jarraitu zuten aldagelan proiektore baten bidez, "eta horrek urduriago jarri zigun".

MITOAROAK izan duen "arrakasta" espero zuten, "baina ez nuen espero horrelako ikuskizunik montatuko zuenik", esan du Etxaizek. Jorge: "Nik uste jendeak uste zuela kontzertu bat izango, baina etxean komentatuz, musika mota hori ez zaiela gustatzen, eta sekulako ikuskizuna zela komentatu zuten. Horregatik nik uste sortu dela hainbeste gerora ere". Ikuskizuna ongi egon zen, baina unetxorik politena kamerinoan bizi zutela esan dute altsasuarrek. Bertan hiru belaunaldi desberdin bildu ziren, "eta polita da batzuk urte asko daramatzatelako batzordean eta gu adibidez orain sartu gara". Aitortu dutenez, oraindik ez dira guztiz kontzientzia zenbat jenderen aurrean dantzatu ziren.



"EZ GENUEN ESPERO HORRELAKO IKUSKIZUNIK MONTATUKO ZUENIK"
ASIER ETA AINHOA,
MOMOTXORROAK

Harrigarria dirudien arren MITOAROArako bi entsegu egin zituzten inauterietako pertsonaiek, bat Arbizun eta bestea Nafarroa Arenan bertan ikuskizunaren aurreko egunean. "Kaotikoak" izan direla esan dute parte hartzaileek. Novoselsky: "Entsegua ostegunean eta kontzertua ostiralean, nahiko berde ikusten genuen; hainbeste jende koordinatzea eta oso zaila ikusten genuen". Talde bakoitza noiz atara behar zen eta zer egin behar zuten bazekien, "eta ongi atara zen".

Oihartzuna

Arbizuarrek azaldu bezala, egunak pasa diren arren MITOAROaren zurrunbiloak oraindik darrai. Nafarroa Arenan irailaren 6an AAZTIYEN diskoaren bira amaiera egingo zuela iragarri zuten, ilbeltzaren 7an sarrerak salgai jarri zituzten, eta laster agortu zirenez bi data gehiago jarri behar izan zituzten. Dagoeneko hiru egunetarako sarrerak agortu dira. Ikuskizunak izan duen oihartzunak Unanuko eta Altsasuko inauterietan eragina izango zuela uste dute bertako kideek.

"Nik pertsonalki uste dut jende gehiago etorriko dela, eta beldurra daukat", esan du Mozo unanuarrek. MITOAROA ez ezik, AAZTIYENen iruditegia izateak ere "booma" izan dela uste du: "Igandean, eguraldi ona egiten badu, eta martxoa da, beraz eguraldi hobea egingo du... ez dakit zer gertatuko den".

Altsasuko inauteri batzordea dagoeneko prestatzen hasi dira: "Bileran komentatu genuen honen alde onak eta txarrak dituela. Alde ona eta gure helburuetako bat zen Altsasuko jendeari inauteri grin hori berriz azalaratzea; azken urtetan distortsionatu dela uste dugu". Baina "hainbeste tokitan ateratzean" jendea asko etorriko dela aurreikusten dute, "eta hori kontrolatzea zaila izango da".

Maskarita berreskuratzea edo indartzea da batzordearen beste helburuetako bat da, "eta horretan gaude". Ilunbeko kontzertuaren bideoan, hain zuzen, maskarita bat agertzen da. Kasualitatea? "Kasualitatea ez da izan". Batzordeak proposatutako zerbait izan da, eta antza denez, Euskal Herriko zenbait pertsonaiekin batera Altsasuko maskarita eta akerra izango dira Donostian.

"Ihote topaketak oso aberasgarriak dira"

Olatzagutiko ihoteetako pertsonaiek narruak, oihalak eta bestelako jantziak maletan sartu eta Portugalgo bidea hartuko dute gaur. Arcasen ospatzen duten maskaradan parte hartuko dutela esan du Adelaida Kintana ihote elkarteko kideak

Erkuden Ruiz Barroso OLATZAGUTIA

1 Nora zoazte?

Arcas izeneko herri batera; Macedo de Cavaleirostik 20 kilometro ingurura. Mapa begiratu, Zamoraren lerro horretan dago, Ourensetik oso hurbil ere.

2 Zertara zoazte?

Desfilatzera. Iberiar Penintsula osoko maskaradak biltzen dituen kontzentrazio bat egiten dute. 25 maskarada goaz, beraz, erakusketa edo desfile hori oso handia izango da; oso aberasgarria, koloretsua, ederra, polita eta disfrutatze modukoa izanen da. Portugalen, Zamoran eta Galizia alde horretan ohitura handia dago horrelako topaketak egiteko.

3 Nola sortu zen bidaia?

Gure inauteriak berreskuratu genituenetik 25. urtemuga ospatu genuenean gure ondoko inauteriak gonbidatu genituen: Zalduondo, Altsasu, Urdiain, Unanu, baita Avilako Navalosako cucurumachosak ere. Oso egokia iruditu zitzaigun trukea egitea eta orduan hasi ginen Avilakoekin hizketan, eta haiek urte hartan Mascaravila ospatu behar zuten. Gredos mendizerra inguruko herriak biltzen dira topaketa horretan, eta kanpoko gonbidatuak hartzen dituzte ere bai. Orduan hasi ginen Navalosakoekin. Gonbidatuta joaten zarenean eta beste inauteri batzuk ere gonbidatuta daudenez, jendea ezagutzen duzu. Herri bazkariak egiten dira eta bertan jende guztia elkartzen gara. Izugarritzko elkartruke kulturala da. Guk ezagutzen ditugu hanga inauteriak, ohiturak, hizkuntza, kantonak... Eta etortzen direnean ezagutzen dituzte gure hizkuntza, ohiturak, gastronomia eta abar. Aurreko urtean Asturiasen egon ginen eta bertan Caretos de Arcas portugaldarrak



Adelaida Kintana Olatzagutiko ihote elkarteko kidea 'Neska' eskultura berrian.

zeuden, haiekin harremanetan jarri eta horrela sortu zen bidaia. Aurten ezin dira etorri, baina 2026an etorriko dira.

4 Nolakoak dira Arcasko inauteriak?

Ikusgarriak dira. Jantzi gorri, granate eta marroiak daramatzate. Aurpegian egurrezko maskara bat, iluna eta desfilea egin ondoren borroka egiten dute. Borroka portugezaren oinarria dela uste dut. Bi gizon aurrez aurre daude eta saiatu behar dira bestearen hanka jasotzen, lurrera botatzen eta bizkarra lurraren kontra jartzen. Benetan ikusgarria.

5 Olaztikoekin zerbait komunean dute?

Kanpotik begiratu ez duzu ikusten deus, oso jantzi desberdinak direlako. Komunean oso aspaldikoak direla dute. Haiek inauteriak inauteri garaian ospatzen dituzte, udaberriari dei eginez natura neguan lo egon

ondoren. Antropologikoki komunean horixe daukagu.

6 Zer pertsonaia joanen zarete?

Zamar handiak, zamar txikiak, neskak, alkate jaun edo andrea eta Mari Arroka haren suzko igitaiarekin. Toki guztietan Mari Arrokaren sarrera triumfala izaten da, ikaragarria. Belargileak ere joanen dira, gaur egungo medikuak lirartekeenak.

7 Zenbat pertsona?

28 lagun. Horrelako topaketa batetara joaten garenean aurrean dagoen taldea eta atzean dagoena ikusten dugu. Sakabatzeko zaila da, taldea goaz; desfile bat da.

8 Zerbait berezia prestatu duzue?

Aurreko urtean tarte luzez itxoitea tokatu zitzaigun eta itxoiten genuen bitartean dantzatzea erabaki genuen; dantza arruntak, polka eta abar. Izugarritzko arrakasta izan zuen. Jendea poz-pozik zegoen. Ekitaldi hauetan zortzi-

koa, jota eta porrusalda, polka, zazpi jauzi eta abar egiten ditugu ere bai eta sekulako arrakasta izaten dute. Bukatzean bost inauteri gerturatu ziren trukea egiteko; baina ezin dugu data berberetan ospatzen ditugulako inauteriak.

9 Non gehiago egon zarete?

Asturiasen, Avilan, Guadaluajaran, Iparralden ere egon ginen, eta orain Portugal.

10 Neskaren eskultura mustu zuten. Nola sortu zen ideia?

Idea udalarena izan zen, eta eskertzekoa da. Eskolako frontoiaren ondoan bazegoen sekuoia bat, sekulakoa, eta tximista batek jo zuen eta barrutik erreta zegoen. Zaindu zuten, baina gaixotasuna

barnera zihoan eta pena bat zen horrelako zuhaitz bat botatzea, beraz, eskultura bat egitea pentsatu zuten. Ihoteak erreprezentatzen zuen zerbait egitea pentsatu zuten; neska. Emakumea naizen aldetik izugarri pozten naiz neska izatea. Oso polita da. Aurten bertatik aterako da inauteria.

11 Laster inauteriak. Prestatzen hasi zarete?

Bi egunetan ospatzen ditugu: ostiralean Mari Arrokaren ongi-torria izaten da eta hori ere hunkigarria izaten da, eta larunbatean pertsonaia guztiak ateratzen dira. Azken aste hauetan oso lanpeturik ibili gara Portugalera joateko prestakizunekin, eta bueltatutakoan serioago jarriko gara gure ospakizunarekin.

URTE BERRI

irudi berri

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus